EUSKARA

# URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Azaleko irudiak: Steve Paxton. Joy of Movement Center, Cambridge, Massachusetts, Janeiro 1978. Argazkia: ©Stephen Petegorsky //
Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko eraikina

*Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao leku egokia da kultura praktika, prozesu, esperientzietarako espazio gisa bizitzeko.*

6 *Etorkizunari begira.* Fernando Pérez. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria
8 Dantza kubo zurian bizi da
10 Forma artistiko berriak dira 2020ko programazioaren ardatza
12 Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

## PROGRAMAZIOA

### /Arte garaikidea

18 *Steve Paxton. Drafting Interior Techniques.* Erakusketa
20 *Open Codes. We are data.* Erakusketa
22 Lester Álvarez eta José Ramón Ais. *La verdadera noche*. Erakusketa
24 Alina Aguila eta Tana Garrido. Erakusketa
26 Ane Pikaza. Fatxada Proiektua
28 Nestor Lizalde. *Akelarre elektrikoa*. Instalazioa
30 consonni radio Az-rekin FEST. Egonaldi Artistikoak
32 Sra. Polaroiska. *Emakume jakintsuen kontseilua*. Artista Az Kideak
34 Oscar Gómez Mata. *Makers*. Artista Az Kideak

### /Zinema eta ikus-entzunezkoak

36 BIdeOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira
39 *Zinemaren historiako 50 harribitxi.* Zinemateka
43 *Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz.* Zinemateka
46 Golem Arte 2020ko Negua. Zinema
46 *Momentum Generation*. Bilbao Surf Festival

### /Arte biziak

48 Jurij Konjar. *Flat + Satisfyin Lover* (Steve Paxton) & *Variaciones Goldberg* (Jurij Konjar). Dantza
50 Ion Munduate. *Goldberg Versions*. Dantza
52 Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter Mathiassen. Dantza
54 Álex Rigola. *Macho Man*. Instalazioa
56 Lekuona. *Break Fast Live*. Musika
58 Lois. Musika
60 Lasole. *Números primos*. Musika
62 Lluïsa Espigolé eta Erica Wise. *Portrait Concert Morton Feldman. Patterns in a Chromatic Field (1981)* biolontxelo eta pianorako. Musika esperimentala
64 Natasha Barrett eta Mikel Iturregi. Musika esperimentala
66 Sandra Cuesta. *Lo adherente y el fuego*. Musika esperimentala
68 Dantzan Bilaka. Dantza

68 La Nuit des Idées (Ideien Gaua). Gizartea
69 Loraldia 2020. Musika, antzerkia, inprobisazioa

**/Literatura**

70 Mikel Santiago. *Nola idatzi eleberri bat astirik ez baduzu?* Topaketa
71 Posy Simmonds. Topaketa

**/Kultura digitalak**

72 Laboratorio Klem. *Pulse*. Soinu-esperientzia

**EGONALDI ARTISTIKOEN PROGRAMA**

76 2020ko deialdiak. Dantza Garaikidea eta Praktika Artistikoak
77 Komikien egonaldi artistiko berria

**HEZKUNTZA PROGRAMA**

82 Sorkuntzako prozesuei buruzko tailerra, Lester Álvarez eta José Ramón Ais artistekin
83 Leire Urbeltz. *La probabilidad de un Entre*. Tailerra
84 Aitor Saraiba. *Autobiografías*. Tailerra
85 Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak
86 Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak
87 Patricia Kuypers. Steve Paxtonen inguruko tailerra
88 Bilbon Eskolatik Antzerkira
89 Elizabeth Casillas. *Zer da eleberri grafiko bat?* Ikastaroa
90 Joko Biotikoen Estazioa
92 JokuPlay
93 Robotika, programazio eta bideo-jokoen diseinuko tailerrak
94 Mediateka: konektatzeko, pentsatzeko eta sortzeko lekua

**AZ AGENDA**

98 Agenda
104 Informazio orokorra

# Etorkizunari begira

2020. urtea hasiko dugu, hau da, Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaoren hamargarren urteurrenarena. Zentro honek 2010ean zabaldu zituen ateak, hiriaren ingurune kulturala osatzeko asmoz. Urte hauetan, kultura-zentroaren eredu berrien funtsezko adierazleetako bat bihurtu da, eta forma artistiko berrien erreferentea da.

Normalean, emaitzak zifrekin objetibatzen ditugu. Okupazioko, inbertsio ekonomikoetako edo orduetako zifrekin. Gure zifrek betetzen dugun funtzio publikoa bermatzen dute: 2.000 artista, 567 jarduera artistiko, 42 erakusketa, 3.514 egun zabalik, 19.281.451 lagun sartu dira zentrora, %42ko autofinantziazioa, 100 erakunde proiektua bultzatzen…

Alabaina, nire ustez, kulturaren balioa ezin da soilik balio horiekin neurtu, bestelako parametroak ere hartu behar dira kontuan, esate baterako, inklusioa, identitatea, bizikidetza, parte-hartzea, sorkuntza eta ilusioa. Ziurrena, alderdi horiei guztiei adierazle ekonomikoak eman ahal izango bagenizkie, kulturak errentagarritasun-ratiorik altuenak eskainiko lizkiguke, ez bakarrik errentagarritasun soziala, ekonomikoa ere bai.



Nire iritziz, kultura garaikidea ezinbestekoa da gizarte hobe eta aberatsago batean bizitzeko, desberdintasunekin tolerantzia gehiago izateko. Balio kolektiboa ematen digu, kide izateko zentzua, balio kritikoak ezartzen ditu, eredu ekonomikoak garatzen ditu, jasangarritasuna hobetzen du eta elementu bereizgarria da. Beraz, funtsezkoa da, gure eguneroko errealitatearen maila guztietan dabilen zerbait.

Kultura garaikideak, artearen eta sorkuntzaren bidez, esperientzia pertsonalak eta kolektiboak sortzen ditu, beste begirada bat ematen digu -artisten begirada-, eta pertsonen hazkundeari laguntzeko behar den jakintza ere bai, gizarteak kontzientzia kritikoagoa eta dibertsoagoa izan dezan.

Eta hori Azkuna Zentroan gertatzen da. Esperientzia gogoangarriak bizitzeko moduko tokia baita: antzezlan bat ikusi zenuen lehen aldia, artelan baten aurrean pasatu zineneko une hura, markatu zizun liburua, igerian ikasi zenuen unea, zure gogoeta eginez osotasun baten parte sentitu zinenean; edo artista baten diskurtso bisualaren bidez zure pentsaera aldatu zenuenekoa.

Alhóndigan, ‘gertaera’ bakanek osatzen dute programazioa: tailer batek, kontzertu batek, hitzaldi batek, eraikinean barrena egindako ibilaldi batek... Eta gertaera bakanak dira, pertsona bakoitzak modu desberdinean hartzen dituelako. Horregatik, gure ustez, guztiz garrantzitsuak dira, hala sorkuntza-prozesua, nola ekitaldiaren ospakizuna eta hortik geratzen dena, uzten duen jakintzaren hondarra, eta Artxiboaren edo argitaratzen ditugun argitalpenen bidez erregistratzea. Horregatik aipatzen dugu Azkuna Zentroa praktika, prozesu eta esperientziarako espazio gisa.

Urte berezia izango da aurtengoa, eta, guretzat, urteurrena ospakizun bat baino zerbait gehiago izango da: trantsizio bat, Azkuna Zentroa hasieran izan zenaren eta duen norabidearen arteko zubi bat. Orainaren bidez begiratu nahi diogu etorkizunari, egungo Programa Proiektuaren bidez, hari esker epe ertain eta luzean Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao zer izango den sumatzen baitugu.

Orain dela urtebete jarri genuen abian ibilbide-orri hau, helburu berritu honekin: gizartearen eta kultura garaikidearen arteko lokailua izatea, hainbat esparruren arteko komunikazio-hodietan lan egitea, eta etengabe aldatzen ari den gizarte- eta kultura-testuingurua kontuan hartzea.

Hilabete hauetan, zeharkako programazio baterantz egin dugu bilakaera, programazioak hizkuntza artistikoak eta diziplinak zeharkatzen baititu, horiek gurutzatzen eta agerian jartzen baititu; eta, era berean, berdinak eta desberdinak lotzen ditu; praktika artistikotik prestakuntza eta heziketa ematen ditu,; arrazak, sexuak, hizkuntzak, geopolitika eta identitatekoa zeharkatzen ditu, forma guztietan; kontzientziak eta gorputzak eragiten ditu; mugak eta topikoak zeharkatzen ditu… Hori guztia 200 artista eta kolektibo baino gehiagoren botere katalizatzailearen bidez, horiek ideien lurralde berriak eta irudien, formen eta denboren paradigmak lotzen baitituzte.

2020. urtea ospakizun-urtea izango da, eta programazioak beste modu bat proposatuko digu esperientzia artistikoa bizitzeko, modu hedatua, bertako, Estatuko eta nazioarteko artisten proiektuen bidez.

Fernando Pérez
Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria

# Dantza kubo zurian bizi da

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Erakusketa Aretoak otsailean zabalduko dizkie ateak dantza garaikideari eta haren aitzindari Steve Paxtoni (Arizona, 1939). Paxtonen proiektuak esperimentazio-espazio bihurtzen du kutxa zuria, arte eszenikoan, memorian, ikus-entzunezko narrazioan eta praktika performatiboan zehar ibiliz.

*Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* da AEBetako koreografoaren lanari eta legatuari buruzko lehenengo atzera begirakoa. Contact improvisation teknika sortu, eta iraultza ekarri zuen 70eko hamarkadan, ballet klasikoan ezarritako kodeak hautsi baitzituen, inprobisazioaren, kontaktuaren eta mugimenduaren bidez.

Haren lanak eragin handia izan du dantzako profesional askorengan, horiek jaso egin baitituzte Paxtonen lanaren ezaugarri diren obsesioak: eguneroko mugimenduen azterketa eta integrazioa, ukimenaren, pisuaren eta orekaren garrantzia, eta gorputz ez-teknikorako irekiera.

Culturgest-en (Lisboa) jatorrizko ideia bat da erakusketa hau, 2019ko martxotik uztailera bitartean aurkeztu zena. Orain, Azkuna Zentrora iritsiko da, João Fiadeiro koreografoak eta Romain Bigé ikertzaileak komisariatuta. Paxtonen figura sakon ezagutzen duten aditu hauek mugimenduan dauden irudien erakusketa bat planteatzen dute, artistaren jatorrizko jarduerekin eta instalazioekin egindako ikus-entzunezko artxiboena. Paxtonek bere ibilbidean barrena mugimenduari eta gorputzari buruz egin dituen galderak erakusten dituzte, zortzi ‘estudiotan’ islatuta: oinezkoen mugimendua, anarkia, ukimena, desorientazioa, grabitatea, gelditasuna, indibidualtasuna eta harremana.

> Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Erakusketa Aretoa esperimentazio-espazio bihurtzen da arte eszenikoan, memorian, ikus-entzunezko narrazioan eta praktika performatiboan zehar ibiliz.

Paxton bere formen praktikatzailea da batez ere, eta premisa horretatik antolatu da erakusketa, gorputzarekin esperimentatzeko agerleku gisa. Eremu hori aurrez jorratu da, bertako dantzako profesionalekin eta eskolekin lan eginez, lankidetza garatu ahal izateko, dantzariek entsegu eta praktika performatibo gisa erabil dezaten aretoa.

Koreografoaren lanaren zeharkakotasuna ere proiektu honen programa publikoan ageri da: hainbat inprobisazio-tailer, emanaldi eta entsegu egingo dira, erakusketa-aretoan dagoen agertokian.

## Steve Paxton

Steve Paxtonek (Arizona, 1939) berrogeita hamarreko hamarkadan hasi zuen ibilbidea dantzari profesional gisa. José Limónekin eta Merce Cunningham Dance Company-rekin dantzatu zuen. Elkarlanean aritu zen Robert Rauschenberg, Simone Forti, Yvonne Rainer eta beste artista askorekin, eta Judson Dance Theater eta Grand Union kolektiboa sortu zituen haiekin batera. Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, laguntza eman



Steve Paxton. Joy of Movement Center, Cambridge, Massachusetts, Janeiro 1978. Arg. ©Stephen Petegorsky

**Erakusketa**

- Zortzi estudio, ikus-entzunezko piezekin, Paxtonen begiradaren bidez mugimendua behatzeko: oinezkoak, anarkia, ukimena, grabitatea, gelditasuna, desorientazioa, indibidualtasuna eta harremana.
- Dantzarekin, artearekin edo psikologiarekin zerikusia duten 70 liburutik gora. Funts hori Mediatekako bibliografia-bildumaren parte da, eta gune horretan kontsultatu ahal izango da erakusketa amaitu ondoren.
- Gorputzarekin esperimentatzeko agertoki performatiboa.
- Programa publikoa, performance, tailer eta irakurketa-saioekin.

zuen bi dantza-teknika iraultzaile sortzeko: ‘Kontaktuaren inprobisazioa’ eta ‘Material for the Spine’ izenekoak.

Mugimenduan-dagoen-pentsalaria eta idazlea izanik, Paxtonek ehun artikulu baino gehiago argitaratu ditu, dantzari eta inprobisazioari buruz, eta ibilbide luzea egin du, dantzari, koreografo eta irakasle gisa, Ipar Amerikan eta Europan. 1970etik Mad Brook Farm-en bizi da, Vermont-en iparraldean dagoen artisten komuna batean.

## Komisarioak

João Fiadeiro, dantzaren koreografoa eta teorikoa, Nova Dança Portuguesaren ordezkari nabarmena da.

Romain Bigé ikertzailea eta filosofiako eta dantzako irakaslea da. Steve Paxtonen lanean aditua. ‘Contact Improvisation’ (Kontaktuaren inprobisazioa) teknikari buruzko tesia egin zuen, Sharing the Movement titulupean (2017).

Erakusketaren inguruko informazio gehiago 18. orrialdean.

# Forma artistiko berriak dira 2020ko programazioaren ardatza

Aurtengo bigarren hiruhilekoko programazioan, Azkuna Zentroan - Alhóndiga Bilbaon egingo diren hiru topaketa handi nabarmentzen dira. Hor, forma artistiko berriak izango dira protagonista, eta Zentroan biziko dira esparru desberdinetatik, hala nola literaturatik, zuzeneko arteetatik, kultura digitaletik, ikus-entzunezkoetatik eta arte garaikidetik.

Hala, Gutun Zuria, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdi berria, martxoaren 31n abiatuko da, saiakera ardatz gisa hartuta, literatura-genero den aldetik harantz joz, kultura-prozesutzat, denbora errealeko pentsamendutzat eta, azken batean, kulturan jarduteko eredutzat hartuko baita.

Saiakerak egitea literatura-lan bat baino gehiago da, jarrera eta proiektua ere bada, eta zirriborroa, planoa, simulakroa... behar ditu. Hortaz, ohikoak izan arren beti ikusten ez diren espazioetan azaleratuko dugu, hala nola arte bisualetan, arte eszenikoetan, musikan eta ikus-entzunezkoan. Saioaren esperimentazioa sartuko dugu Azkuna Zentroko - Alhondiga Bilbaoko programazioan.

Bestalde, bi urtean behin bienal gisa egiten dugun Prototipoak, Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Topaketa, maiatzean itzuliko da; eta era askotako formatu artistikoak hurbilduko dizkie herritarrei, hain



ohikoak ez diren espazioak eta komunitate artistikoarekin lankidetzan sortutako prozesu artistikoak erabiliz.

Aurtengo proiektuen artean, Ana Laura Aláez artistaren *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik)* erakusketa nabarmentzen da, Bea Espejok komisariatua eta Madrilgo CA2M Centro de arte Dos de Mayorekin batera ekoitzia.

Erakusketak batera biltzen ditu artistak bere ibilbidearen hasieran egin zituen lan batzuk, eta azken obretako batzuekin jartzen ditu harremanetan. Jatorriari bira bat ematea proposatzen du, azken hogei urteetan haren obran azaldu diren gaien arrakaletan lan egiteko: gorputza idulki gisa, idulkia eskultura gisa, eskultura kanta gisa, gaua material gisa, identitatea gatazka gisa, inpostura aukera gisa.

Udaberri honetan Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon izango ditugun hitzordu saihestezinak dira. Zentroaren hamargarren urteurrenaren barruan sartuta, gaur egungo testuinguru artistikoan garrantzitsuak diren erakusketa-proiektuak aurkezteko dugun zeregina jartzen dute agerian.




Ana Laura Aláez. *Todos los conciertos, todas las noches todo vacío*

# Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurten abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.

© United States Artists



Steve Paxton
Dantzaria eta koreografoa



Romain Bigé
Komisarioa, dantzaria eta koreografoa

© Cristiano Prim



João Fiadeiro
Komisarioa, dantzaria eta koreografoa



Ixiar Rozas
Idazlea, dramagilea eta ikertzailea

© Hans Schubert



Jurij Konjar
Dantzaria eta koreografoa



Ion Munduate
Dantzaria eta koreografoa



Sigrid Stigsdatter Mathiassen
Koreografoa eta performer



Tana Garrido
Artista



Alina Aguila
Artista



José Ramon Ais
Artista



Lester Álvarez
Artista



Jaiotz Osa
Koreografoa eta dantzaria



Blanca Gimenez
Komisarioa



Jaime de los Ríosl
Komisarioa



Rafael
Lozano-Hemmer
Artista



Olivier-Selim Boualam
& Lukas Marstaller
Artistak

© Gregor Fischer



James Bridle
Artista



Claire L. Evans
Artista



Emma Charles
Artista

© Picture-alliance



Karin Sander
Artista



Refik Anadol
Artista

© La Biennale de Lyon



Julien Prévieux
Artista



Bernd Lintermann
Artista



Nikolaus Völzow
Artista



Arrieta/Vázquez
Artistak



Adam Słowik,
Artista

© Akshay Sawant



Christian Lölkes
Artista



Peter Weibel
Artista





Ubermorgen
(Lizvlx & Hans Bernhard)
Artistak





Varvara & Mar
Artistak



María Mur Dean
consonni
Kolektibo Egoiliarra



Iñaki Landa
consonni
Kolektibo Egoiliarra



Dina Camorino
consonni
Kolektibo Egoiliarra



Nestor Lizalde
Artista



Munts Brunet
consonni
Kolektibo Egoiliarra



Álex Rigola
Artista



Leire Urbeltz
Ilustratzailea, artista, diseinatzailea



Aitor Saraiba
Ilustratzailea, artista, diseinatzailea



Ane Pikaza
Ilustratzailea, artista, diseinatzailea



Elizabeth Casillas
Kazetaria eta editorea



Mikel Santiago
Idazlea

© María Meseguer



Natalia Piñuel y Enrique Piñuel
Zinema zuzendariak



Rubén Corral
Programatzailea

© Andrés Zaragoza





Oier Iruretagoiena
Artista

Lluïsa Espigolé
Pianojolea





Erica Wise
Biolontxelista

Miguel A. García
Soinu-artista

© Elhuyar



Enrike Hurtado
Artista



Natasha Barret
Interpretea, konpositorea



Lekuona
Interpretea, konpositorea



Lasole
Interpretea, konpositorea



Lois
Interpretea, konpositorea

© Steeve Luncker



Oscar Gómez Mata
Artista Az Kidea



Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe)
Artista Az Kideak

PROGRAMAZIOA

# Steve Paxton. Drafting Interior Techniques

Lisboako Culturgest-rekin lankidetzan



Argazkia: Steve Paxton. *Adjusting feet*

## «Jenderik gabeko basoan lurrera eroriz gero zaratarik aterako al zuen ez zekien zuhaitz ospetsuak bezala, bada gauzei begiratzeko modu bat, gauza horiek interpretatzeko aukera ematen duena». (Steve Paxton, 1967)

Azkuna Zentroak *Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* erakusketa aurkezten du, Romain Bigé eta João Fiadeiro, komisario direla, eta Culturgest (Lisboa) lankidetzan egina. AEBetako Steve Paxton dantzari, koreografo eta inprobisatzailearen lanari eta ondareari eskainitako atzera begirako lehenengo erakusketa da.

Erakusketa zortzi 'ikasgelatan' egituratuta dago; horietako bakoitza dantzatzen-inprobisatzen mugimenduan-den-gorputzari aplikatutako 'barneko teknika' bati dagokio. Dantzako ikasgelan Paxtonek bere buruari behin eta berriz egiten zion galdera baten inguruan dabil jira-biraka: Zer egiten du nire gorputzak hartaz kontziente ez naizenean?

Horrela, dantza praktika eta errepresentazio bezala hartuta, erakusketak aretoko espazioak eraldatu, behin-behineko dantza-ikasgela bilakatzen ditu, eta ikusleei eta dantzariei gonbit egiten die beren mugimenduei buruz galderak egitera. Jatorrizko errepresentazioei, elkarrizketei eta instalazioei buruzko bideo-artxiboak erakusteaz gain, erakusketa lurrean pirritan ibiltzeko, esertzeko, dantzan zutik aritzeko, espazioa bizitzeko... leku bihurtuko da... Azken batean, mugimenduaz gogoeta egin nahi da, dantzan ari diren buru baten eta gorputz baten ikuspuntutik.

Koreografoaren alderdi ugariei omen eginez, erakusketa osatzeko, performance zikloa, tailerrak, Contact Improvisation eskolak, jam session-ak eta tokiko naiz nazioarteko dantzariekin elkarlanean egindako lanak izango dira, Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaoko erakusketa-aretoa dantza espazioa bihurtzeko asmoz.

Otsailak 20 > Maiatzak 10

Erakusketa aretoa
Sarrera dohainik

**Ordutegia:**

Astelehenetan itxita

Asteartetik ostegunera eta igandeak: 11:00 - 20:00

Ostiralak, larunbatak, igandeak, jai-egunak eta jai-egun bezperak: 11:00 - 21:00

**Bisita gidatuak** (45`):

Ostegunero: 19:00

Sarrera dohainik aurrez Az Infon edo 944 014 014 telefonoan izena emanda

Gutxienez: 4 lagun
Gehienez: 25 lagun

SMART PLACES — Co-funded by the Creative Europe Programme of the European Union

**Programa Publikoa:**

Contact Improvisation eskolak
Tokiko profesionalek gidatuak.
Igande goiz guztietan
+ info: azkunazentroa.eus

Jurij Konjar (48. or.)
Otsailak 21, ostirala
*Flat + Satisfyin Lover* (Steve Paxton) / *Goldberg Variations*

Ion Muntuate (50. or.)
Martxoak 12, osteguna
*Goldberg Versions*

Mal Pelo
Apirilak 23, osteguna

Steve Paxtonen inguruko tailerrak

Patricia Kuypers (87. or.)
Martxoak 11 > 14

Otto Ramstad: Apirilak 20 > 23

Ixiar Rozas: Apirilak 24 eta 25

Culturgest

**Erakusketa hau Culturgest-en (Lisboa) jatorrizko ideia bat da, 2019ko martxotik uztailera bitartean aurkeztua**

ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA

**URR. 23, 2019 › URT. 26, 2020**

# Open Codes. We are data

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao eta ZKM | Center of Art and Media Karlsruhe zentroen erakusketa



7.000 lagun baino gehiago izan dira Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko *Open Codes. We are data* erakusketan. Urriaren 23tik urtarrilaren 26ra arte zabalik egongo den erakusketak gure bizimodua iraultzen ari diren teknologia disruptiboen dimentsio artistikoa ikertzen du. Kultura digitalak eratzen dituzten teknologiak, eta haiek eraldatzeko duten ahalmena.

*Open Codes. We are data* esperientzia digitalean, nazioarteko hogei artistaren begirada eta 16 arte-pieza agertzen dira, eta adimen artifizialaren estetika, arkitekturaren eta arte eszenikoen arteko intersekzioa, datuen arkitektura babestua miatzen duen fotografia eta gure testuinguruan gurekin bizitzen hasi diren adimen-forma desberdinen arteko komunikazio berriak erausten dituzte.

*Open Codes. We are data* sorkuntzako topaketak egiteko espazio esperimental modura hartzen da, kode informatikoak ulertzeko jakintzaren eta ikuspegi artistikoen sorrera toki berean garatzeko. Ahalegin bat da gaur egungo errealitateekin eragin-trukea izateko, eta etorkizuneko garapen-ildoak eta ikuspegiak erakusteko, horrela, gure mundua hobeto ulertu ahal izateko, datu-eremu bilakatutako mundu bat baita.

Erakusketarekin batera, programa publiko zabala antolatu da, egitura zurrunak apurtzeko, sarrera libreko jakintzako plataforma bat garatuz, eta gonbit eginez erakusketa-aretoa gogoetara irekitako espazio gisa hartzeko, jakintza trukatzeko eta hartzeko toki eta lankidetzan aritzeko formatu berri bat izan dadin. Ildo horretan, Open Space aktibatu da, kode irekiaren gaiari lotutako tailerrak, hitzaldiak, mahai-inguruak, biltzarrak eta bestelako ikuskizun publikoak egiteko diseinatutako espazioa. Espazio honen bereizgarria da edozeinek eman diezaiokeela forma edukiari. Erakusketak azpiegitura jarriko du; ikusleek, berriz, ideiez beteko dute.

Ikusi gure web orria eskuragarritasuna eta informazio gehiago izateko.

Ideia: **Peter Weibel**
Komisariotza taldea: **Blanca Giménez, Jaime de los Ríos, Fernando Pérez, Rakel Esparza. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao eta ZKM | Karlsruhe**
Artistak: **Adam Słowik, Christian Lölkes & Peter Weibel, Refik Anadol, Bernd Lintermann & Nikolaus Völzow, BNAG (Oliver-Selim Boualam & Lukas Marstaller), Claire L. Evans, Emma Charles, James Bridle, Julien Prévieux, Karin Sander, Rafael Lozano-Hemmer, UBERMORGEN (lizvlx & Hans Bernhard), Varvara & Mar, Arrieta/Vázquez**

2019ko urriak 23 > 2020ko urtarrilak 26

Erakusketa aretoa
Sarrera dohainik

**Ordutegia:**
Astelehenetan itxita
Asteartetik ostegunera eta igandeak:
11:00 - 20:00
Ostiralak, larunbatak, igandeak, jai-egunak eta jai-egun bezperak:
11:00 - 21:00

**Bisita gidatuak** (45´):
Erakusketaren bisita gidatua
Ostegunero: 19:00
Sarrera dohainik aurrez Az Infon edo 944 014 014 telefonoan izena emanda
Gutxienez: 4 lagun
Gehienez: 25 lagun

SMART PLACES — Co-funded by the Creative Europe Programme of the European Union

**Programa Publikoa:**
Natalia Piñuel & Enrique Piñuel *Zinema irekia: etorkizun berria asmatuz* (43 or.)
Laboratorio Klem. *Pulse* (72. or.)

**Antolatu zure ekitaldia Open Space-n.** Kontsultatu espazioa eskuragarri dagoen hemen: openspace.azkunazentroa.eus

Elkarlanean: zkm karlsruhe

Laguntzaileak: DINOF, Maker Faire Bilbao

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko ***Open Codes. We are data*** Alemaniako Karlsruhe-ko Open Codes ZKM | Baliabide eta Arte Zentroaren erakusketa satelite bat da, eta hainbat eboluzio-bertsiotan garatzen ari da.

ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA

**ABE. 4, 2019 › URT. 26, 2020**

# Lester Álvarez eta José Ramón Ais

## *La verdadera noche*

Praktika Artistikoen Egonaldia 2018



*La verdadera noche*

Lester Álvarez (Kuba) eta José Ramón Ais (Bilbo) artistek Lantegia. Ideien Laborategiko BAT Espazioa aktibatu egin dute. 2018ko Praktika Artistikoen Egonaldian gauzatutako proiektuen emaitza partekatzen dute bertan, Habanako Estudio Carlos Garaicoaren Artista x Artista programarekin lankidetzan.

José Ramón Aisek *Brillan en la noche* bideo-sorkuntza aurkeztuko du, Kubako naturaren eszenetatik abiatuta sortutako fikziozko paisaia bat zeharkatzen duena. Gaueko amesgaizto bat, kokoriko eta intsektu bioluminiszenteek argiztatua eta panorama gisa eraikia. Irudi horretan, herri-kontakizunen atmosferak bat egiten du iraultzaren jatorrian enblematikoak diren paisaiekin.

Panoramak, borroka historikoak irudikatzen ziren gailu piktorikoak, estrukturalki panopikoaren antzekoa zena, irudiaren, gailu optikoen eta arkitekturaren erabileren azterketa bat irekitzen du ideologien eraikuntzan eta hedapenean. Linterna magiko horretan, politika-, zientzia-, mitologia- eta herri-kontakizunak alderdi askotako irudimenean elkartzen dira.

Erakusketa borobiltzeko, Lester Álvarez artista kubatarraren bi proiektu daude ikusgai: *La Noche en Cuba* eta V*iaje del inquisidor Alonso de Salazar*. Lehenengoa 1959tik 2019ra bitartean margotutako akuarelen sorta da, gauari egindako erreferentzietan oinarrituta, eta batez ere 1959az geroztik argitaratutako literatura kubatarraren barruan kontatutako ametsetan sortua. Bigarrena, berriz, 1611ko maiatzean Alonso de Salazarrek Nafarroako mendietan zehar egindako bidaiaz idatzi zuen txosten oparoa ardatz hartu duen instalazioa da; haren bidaia berregitea da asmoa, 'ebidentzia' batzuk bilatzeko.

**JOSÉ RAMÓN AIS** (Bilbo, 1971) UPV/EHUn Arte Ederretan lizentziatura eskuratuta eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Eskolan lorezaintza-diseinuko ikasketak eginda. Proiektuan, argazki-sail bat sortu du, Kubako imajinarioa eta paisaia eratzeko izan diren prozesuez hausnartzeko, gertaera historikoak, naturako baliabideen erabilera eta ustiapena, aldaketa soziopolitikoak, eta, batez ere, eguneroko erabilerak eta jendeak naturarekin duen harreman emozionala aintzat hartuta.

**LESTER ÁLVAREZ** (Camagüey, Kuba, 1984). Instituto Superior de Arte (ISA) erakundean bukatu zituen goi mailako ikasketak 2011n. Orduz geroztik, sortzaile-ibilbidea garatzen hasi zen; denbora joan ahala, aukera izan du banakako erakusketak egiteko eta proiektu kolektibo askotan parte hartzeko. Haren lanak sariak ere jaso izan ditu, hala nola Ingalaterrako Emerson Collegeko Tengo Frío Artist Group beka eta Italiako Sardinian jasotako ISOLE Nazioarteko Pintura Bienalaren IX. edizioko lehenengo saria.

**2019ko abenduak 4 > 2020ko urtarrilak 26**
**Asteartetik larunbatera**

16:30 - 20:30
Lantegia 2. BAT Espazioa

Sarrera dohainik

**Bere sorkuntza prozesuaren inguruko tailerra**

**Urtarrilak 7 eta 8**
**Asteartea eta asteazkena**

17:30 - 20:30
Lantegia 2. BAT Espazioa

Informazio gehiago 84. or.

Elkarlanean:

ARTISTA X ARTISTA

Laguntzailea:

Sabadell Fundación

Fundación Banco Sabadellek Egonaldi Artistikoen Programa babestendu, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.

**OTS. 13 › API. 26**

# Alina Aguila eta Tana Garrido

Praktika Artistikoen Egonaldia 2019



Alina Aguila



Tana Garrido

Tana Garrido (1989) eta Alina Aguila (Kuba, 1987) Praktika Artistikoen artista egoiliarrek, Azkuna Zentroan, Carlos Garaicoa estudioko Artista x Artista programarekin elkarlanean egindako proiektuen emaitza erakusten dute.

Alina Aguilaren lanean, objektuaren xehetasunik txikienak eta haren pertzepzioak eragindako kezka eta manipulazioa agertzen dira, eta indibiduo-materia-espazioen arteko harremana desitxuratu, eta eskalak -fisikoak eta psikologikoak- aldatzen dira. Artistak azaltzen duenez, «arte minimalak keinuen adierazpen subjektibo guztiak kentzen zizkion objektuari. Nire lanean, inbertsio-operazio bat egiten du, egitura minimal baten azpian; ikusleak zoom egiten du imaginario indibidualeko gune arkeologikoetan, non ezinbestekoa den oroitzapenera jotzea».

Alina Aguilarekin elkarrizketan, Tana Garrido artistak Kubako etxeko espazio garaikidearen ikus-entzunezko behatoki bat erakusten du, instalazio-formatuan. Garridok euskal jatorriko emakume kubatarren testigantzarekin lan egin du, generoaz, lurraldeaz eta memoriaz hausnartzeko asmoz.

Sortzaileak dioenez, «prozesuak hainbat etapa izan ditu: Ikerketaren lehen aldia hemen izan da, Euskal Herrian; bigarrena, Habanan, ingurunearekin eta pertsonekin kontaktuan, eta emakume horiekin guztiekin harremanetan; eta hirugarrena, aurreko guztia bideoan eta audioan erregistratzea eta gauzatzea izan da. Azkenik, egonaldiaren azken aldi honetan, Habanan bizi izandako guztia Euskal Herriko ingurunearekin jarri nahi dut harremanetan».

**ALINA AGUILA FERRER** (Villa Clara, Cuba. 1987). Arte Plastikoen Leopoldo Romañach Akademia Profesionalean ikasi zuen (Villa Clara, 2008), eta, gero, Arteen Goi-mailako Institutuan (ISA) jarraitu zuen (Habana, 2013). Egin dituen erakusketen artean, hauek nabarmentzen dira: *Estación Central* (Galería Cristo Salvador. La Habana. 2011) eta *El jardín de los suecos* (Erakusketa bipertsonala, Galerie knoerle & baettig, Winterthur, Suitza, 2017).

**TANA GARRIDOK** (1989) era berean lantzen ditu esparru dokumentala, arte garaikidea, saiakera bisuala edota dinamizazio kulturala. Haren piezak arte garaikideko zentro askotan egon dira ikusgai: Sant Andreu Contemporani eta Arts Santa Mònica (Bartzelona). Horrez gain, Márgenes (Madril) eta Atlanticdoc (Uruguai) zinema-jaialdietan erakutsi da. Emakumeek egindako Film Laburren 'Bendita tú' Zinemaldiaren programatzailea eta sortzailekidea, 'SC kolektiboko' kidea da; Zinema Dokumentaleko 'Iberodocs' Jaialdiko (Edinburgo) programatzailea; gaur egun, film luzerako lehen gidoia idazten ari da.

Otsailak 13 > Apirilak 26
Asteartetik larunbatera
16:30 - 20:30
Lantegia 2. BAT Espazioa
Sarrera dohainik

Elkarlanean:

ARTISTA X ARTISTA

Laguntzailea:

Sabadell Fundación

Fundación Banco Sabadellek Egonaldi Artistikoen Programa babestendu, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.

ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA, ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA **AZA. 15 › URT. 15**

# Ane Pikaza

## *Atentamente mía*

Ilustrazioa



*Atentamente mía*

Ane Pikaza artistak Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiektuaren lehen urtea itxiko du, amodio erromantikoa eta amodioak egindako sakrifizioak jorratzen dituen 'La loca de Arriquibar'-i buruzko proposamenarekin. Aitor Saraiba, Higinia Garay, Naiara Goikoetxea, Leire Urbeltz eta Susana Blascoren proiektuen ondoren, artistak Fatxada nagusiko txanda hartuko du, eta urte hasieratik esku-hartze artistikoak egiteko erabiltzen den espazio hau eraldatuko du.

Proiektuaren inspirazioa Arriquibar plazaren historia bera da, hain zuzen, Arriquibarreko zoroa izeneko Bilboko pertsonaia enblematikoa. Andre horrek gau eta egun ematen zuen aulki berean eserita, artilezko txanoak ehuntzen, maiteminez, eta bere jantzi bitxiak zituen bereizgarri.

«Arriquibarreko espazioa bera oso esanguratsua zen niretzat, istorio hori bainuen gogoan, amak eta amamak hamaika aldiz kontatutakoa. Hortaz, ilustrazioaren bidez, forma eman nahi diot amodio erromantikoaren ideia horri, nola joan den aldatzen horretaz dugun ikuskera. Horixe da abiaburua, eta loredun kapela zoro horiek ere bai», azaldu du artistak.

Ane Pikazak honela aitortzen du: «Beti pentsatu nuen pertsona bat baino gehiago izan nahi nuela, bizitza bat baino gehiago bizi. Beharbada, horregatik erabaki nuen gustatzen zaidan guztia egitea. Arte Ederrak eta Antzerkia ikasi nituen, eta, denboraren poderioz, desira horrek oreka arraro batean bizitzea lortu du. Gaur egun, neure burua prestatzen jarraitzen dut, eta bi mundu bateratzen ditut: batzuetan oso hurbil daude elkarrengandik; beste batzuetan urrundik begiratzen diote batak besteari, eta noiz edo noiz eskutik lotuta joaten dira. Leiho horretatik atera behar da nire lanak ikusteko. Egin dezagun amets».



**ANE PIKAZA** (Bilbo 1984). Arte Ederretan eta Antzerkian lizentziatu zenetik, ilustrazioa eta arte eszenikoen arloak bateratu ditu. Profil multidiziplinarioa du, eta horrek aukera eman dio era askotako formatuak, aplikazioak eta harremanak ikertzeko, ilustrazioa eta arlo paraleloak (hala nola antzerkia eta bideo-jokoak) jorratuz. Egin dituen lanen artean, *Los ríos de Alice* bideo-jokoa eta Kabia antzerki-konpainiarentzat egin dituen bisualak nabarmentzen dira. Ibilbide luzea egina du, besteak beste, antzerkiko eta jaialdietako kartelekin, erakusketekin eta aldizkariekin elkarlanean. Eszenen eta ametsen unibertso bat, geure buruen aurrean esertzen gaituena.

**Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikia** proiektuak jarraipena izango du 2020an, visual thinking eta graphic recording arloetan aditua den **Pernan Goñi** artista ilustratzailearekin.

2019ko azaroak 15 > 2020ko urtarrilak 15

Arrikibar Plaza (Fatxada)

Sarrera dohainik

anepikaza.com

@AnePikaza

@anepikaza

ane pikaza

Ane Pikaza Ereño

# Nestor Lizalde

## *Akelarre elektrikoa*

Argi interbentzioa terrazan



Néstor Lizalde artistak bere *Akelarre Elektrikoa* pizten du gauero Azkuna Zentroko terrazan.

Baliabide berriak deitutakoen bidez, argi-instalazio honek artearen munduan azaldu diren aukera berriak ikertzen ditu, eta horrela hizketaldi bat sortzen du esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean, eta elkarketa horretatik sortzen diren mintzairak ikertzen ditu. Arte elektronikoko pieza honek eraikinaren goialdeko arkitekturan esku hartzen du, ordenagailu bidez kontrolatutako argiztatze-sistema bat erabiliz.

*Akelarre Elektrikoa* astelehenetik larunbatera ikustatu daiteke, arratsaldeko seiretatik gaueko bederatziak arte, eta sarrera dohainik da.

«Eguzkia ostenduta, argiak azalduko dira iluntasunaren babesean. Argi-matrizeak mugiarazi egingo du egitura, errituetarako espazio gisa paratutako jatorrizko 44 arkuk eratutako atala. Su elektrikoak lehian arituko dira elkarren artean, beren irudikapenak deskribatzeko, leize-zuloko mitoen gisa. Itzalek eta distira dirdaitsuek dantza egingo dute, gauaren mihisean formak zizelkatzen». Nestor Lizalde.

**Astelehenetik larunbatera**

18:00 - 21:00
Terraza

Sarrera dohainik



**NESTOR LIZALDEREN** lanak artearen munduan baliabide berriak deitutakoen bidez azaldu diren aukera berriak ikertzen ditu. Profil tekniko nabaria duen artista honek hizketaldi bat sortzen du esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean, eta elkarketa horretatik sortzen diren mintzairak ikertzen ditu.

Nestor Lizaldek ikerketa praktikoa egiten du, ikusentzunezko forma eta euskarri berrien sorkuntzan oinarrituta, programazioa, diseinu elektronikoa, fabrikazio digitala eta irudiko sistema optikoak erabiliz. Proiektu hauen bidez, imajinario bat eraikitzen du, zientzia fikzioaren eta surrealismoaren arteko bide erdian, murgiltzeko unibertso bat, kezkagarria eta, aldi berean, hipnotikoa.

17.000 lagun baino gehiago izan dira terrazan instalazioaz gozatzen

**URT. 24** (ostr.)

# consonni radio Az-rekin FEST




Irudia: Rosa Llop

Consonni argitaletxeak Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaon duen egonaldiaren amaiera iritsi da. Bertan #consonniradioconAz irratia sortu dugu, eta, bi urtez, irratiko hitzarekin eta entzuketarekin esperimentatu dugu, kultura kritikoa zabalduz.

Amaiera ospatzeko, emakume sortzaileen topaketa bat antolatu nahi dugu, arte garaikidea eta literatura harremanetan jartzeko, feminismoak bide-orri gisa eta irratia transmisore gisa hartuta. Amaiera-Radio Show Live-a Alhondiga Bilbaoko auditorioan izango da, eta funtsezko hiru literatura-lan hartuko ditu ardatz gisa, elkarrekin imajinatzen jarraitzeko abiapuntu modura. Batetik, hirurogeita hamarreko hamarkadan idatzitako bi nobela: Marge Piercy-ren *Mujer al borde del tiempo* eta Lucy R. Lippard-en *Yo veo/Tú significas*. Bestetik, Donna J. Haraway-ren *Seguir con el problema* saiakera.

Hizkuntzarekin esperimentatzen den lan ahalduntzaileak, aktibismo feministan ibilbide luzea duten hiru egileren eskutik. Piercy, Lippard eta Harawayk bizi garen munduari buruzko begirada kritikoa izateko eta beste eszenatoki hobeak irudikatzeko eskatzen digute. Gosea zabaltzeko, literatura-lanak sartzeko eta literatura espekulatibo eta esperimentalaz hitz egiteko, Teresa López-Pellisak moderatutako mahai-inguru bikaina dugu, Haizea Barcenilla, Helen Torres eta Arrate Hidalgorekin.

Ekitaldiaren plater nagusia Idoia Zabaleta, Mursego eta María Arnal bezalako artista erreferentzialek jartzen dute, liburu horiek arteetatik zuzenean eta musikatik interpretatzeko gonbidatuak, hitza gorputz, ekintza eta soinu bihurtuz. Diziplina eta belaunaldi ezberdinetako emakume sortzaileak gurutzatzen dira: Mursego eta Lucy Lippard; Idoia Zabaleta eta Marge Piercy eta Maria Arnal eta Donna Haraway. Batzuen testuak inspirazio-iturri dira besteentzat. Zabaletak, Arnalek eta Mursegok literatur lan bakoitzaren interpretazio pertsonala egiten dute. Idatzitako hitzek gorputza hartzen dute oholtza gainean.

Liburuak metamorfosiatu egiten dira hasierak aktibatzeko eta elkarrekin irudikatzeko. Zuzeneko Radio Show hau bi urte hauetan bizitakoa gogoratzeko unea da, eta azken bi urte hauetan zabaldu ditugun edukiak (podcastak eta liburuak) posible egin dituzten pertsona ugariei eskerrak emateko unea.

consonni

Urtarrilak 24, ostirala

19:00
Auditorioa

Sarrera dohainik gonbidapenarekin

consonni.org

@consonniart

@_consonni_

@_consonni_

consonni radio

consonni
— RADIO

# Sra. Polaroiska

## *Emakume jakintsuen kontseilua*



Sra. Polaroiska. *Consejo de sabias*. Azkuna Zentroa 2019

*Emakume jakintsuen kontseilua*, Artista Az Kideak diren Sra Polaroiska (Alaitz Arenzana y Maria Ibarretxe) proposatutako zikloak, hiruhileko honetan hirugarren saioarekin jarraitzen du. Azken urteotan garatzen ari diren lan-ildoarekin bat etorriz, kolektiboa bereziki bideratuta dago erreferenteak sortzera eta ahalduntzera, genero-ikuspegitik.

*Emakume jakintsuen kontseilua*, adineko emakumeekin, hainbat arlotako profesionalekin, sei topaketa dituen zikloa da: antropologoak, fisikariak, idazleak, ingeniariak, biologoak, musikagileak, zinegileak, artistak, poetak, irakasleak, ile-apaintzaileak, jostunak, erizainak, bizizaleak... Elkarrizketa-sorta baten bidez, emakume horiek euren bizitzako eta laneko esperientziak helaraziko eta partekatuko dizkigute, erreferente bihurtzeko moduan. Jakinduria biltzeko eta partekatzeko proposamen bat da.

Antolaketa intimo eta atsegin baten bidez, Sra Polaroiskak proposatu duen esperientzian, konplizitatea eta estimua jakintza eskualdatzeko tresna dira. Saio bakoitzean, gonbidatuaren araberako leitmotiv bat dago -edari edo janari bat-, esate baterako, egoskinak, teak, infusioak, edabeak, pastak eta askariak, etxeetan eta aretoetan betidanik egin izan diren bilerei ohore eginez, horietan aholkuak eta jakintzak partekatzen baitziren. Formula horrekin, artistek azpikoz gora irauli nahi dute bilera eta espazio horiek baliogabetzeko eta mespretxatzeko joera; berreskuratu egin nahi dituzte, eta esparru publikora zabaldu, era horretan euren balioa aldarrikatuz.



**ALAITZ ARENZANAK** eta **MARIA IBARRETXEK** eratzen dute **SRA POLAROISKA** kolektibo artistikoa. Beren obrak zinema esperimentala, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofía Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.

**Hurrengo kontseilua apirilaren 28an, asteartea, izango da.**

cargocollective.com/srapolaroiska

sra polaroiska

**Artista Az Kidea** programak sorkuntza bultzatzeko ildo berri bat da, zeinek laguntza eman nahi die beren lanen bidez arte berriei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei.

# Oscar Gómez Mata

## *Makers*



Oscar Gómez Mata eta Juan Loriente. *Makers*

Oscar Gómez Mata Artista Az Kideak, Juan Loriente aktorearekin batera lan egiten du bere ekoizpen berriaren sormen-prozesuan: Makers, argiari, denborari eta maitasunari buruzko obran.

Zentroan urrian estreinatuko den *Makers* «egiten dugunari eta egiteko moduari buruzko obra bat da, funtsean anomalia lantzen duena. Gure egiteko moduak bere dinamikan ezarritakoaren arauetatik harantz doan eta espazioan eta denboran gainezka egiten duen haur baten jolasaren antza izan beharko luke», azaldu du Oscarrek.

«Haur bat bezalakoa izateko, kezkatzen ez den eta gainezka egiten duen gizabanako plurala eta multiplea izan beharra dago. Etsipenak sortzen duen errutinak mugatuta ez dagoena. Ezta erabilgarria edo ezinezkoa denak ere. Utopista, izaki askea izango da, boterean dagoen belaunaldiak menderatzeko egiten dituen saiakerak gorabehera. Horixe behar dugu, ume bat, salbatuko gaituen ume bat. Gu, astirik gabeko helduak, honetatik, balearen sabeletik aterako gaituena. Gogo beroz anomalian murgildu. Anomaloa den horretan murgildu salbatzeko, zugandik espero denaren kontrakoa egin», deskribatzen du artistak.

Proiektu horretaz gain, Oscar Gómez Matak *Deriben katalogoa* aktibatu du, Espe López artistarekin batera. Katalogoak hainbat deriba edo ibilaldi proposatzen ditu, eguneroko hiri-paisaien behaketa eta esplorazioa lantzeko. Azken helburua da pertsonek artelana berreskuratzea eta hartaz jabetzea: herritartasuna eta kultura esperientzia bakar batean urtzea. Deriba horietako batzuk esperimentatu nahi dituztenek Az Infon eska ditzakete.

**Sormen prozesua**
Martxoak 9 > 20

**Estreinaldia**
2020ko urria

FITXA ARTISTIKOA

**Ideia eta sorkuntza**:
Oscar Gómez Mata

**Makers**:
Juan Loriente eta Oscar Gómez Mata

alakran.ch

cie.lalakran



Arg.: Steeve Luncke

**OSCAR GÓMEZ MATA**
(Donostia, 1963) Suitzan bizi eta lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, eta 1987an Legaleón-T konpainiaren sortzaile-kide izanik, ikuskizunak sortu zituen horiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak sinatu ditu bertan. Lan pedagogikoa ere garatu du Serge Martin (Suitza) antzerki eskolan eta Les Chantiers Nomades-en (Frantzia). 2013. urteaz geroztik, arauzko irakaslea da Manufacture-n, Suitzako antzerki-eskola frantsesean (HETSR). Suitzako antzerki sari nazionala eskuratu zuen 2018an.

Oskar Gómez Mata **Artista Az Kidea** da. Sorkuntza bultzatzeko programa honek laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza artistikoei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei.

# BIdeOtik

## Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira

BIdeOtik, gure bideo-sorkuntzako programak, formatu berri batekin eboluzionatzen du, deialdi publiko bat gehituz, narratiba berrien bilaketa sustatzen duena eta tokiko eta nazioarteko testuinguruan sortutako proiektuei balioa ematen diena.

Jasotako proposamen guztien artean, 2017az geroztik garatutako artista eta bideosortzaileen hainbat pieza hautatu dira. Erreala denari buruzko zineari eskainiak dira, ikusmolde estetiko eta ikus-entzunezko praktika garaikidetik sortuak. Jorratzen dituzten gaiak esperientzia pertsonalekin, biografiekin, eta historiekin lotuta daude. Feminismoaren, aniztasunaren eta izaera sozialaren inguruko narrativa berrietan arreta jarrita, betiere Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren eginkizunaren eta kultura-estrategiaren lerro berean kokatuta.

Programa honen helburua ikus-entzunezko artistiko, kultural eta sortzaileak sorkuntza, gogoeta eta eraldaketa sozial eta kulturalerako tresna direla erakustea da, hizkuntza berrien erabilera sustatuz, mugimenduan dagoen irudiaren eta arte digitalaren bidez.

Proiekzioak otsailaren 4tik martxoaren 25era bitarteko astearte guztietan izango dira, BIdeOtik programako ohiko formatuan: ikus-entzunezko sorkuntzaren eta gizartearen artean konektatutako espazioa da, non egile bakoitzak bere pieza aurkezten duen eta bere proiektuaren prozesuak jendearekin partekatzen dituen.

Programa osoa gure web-orrian kontsulta dezakezu: azkunazentroa.eus

Programazio honen hautaketa balorazioko batzordeak egin du, Azkuna Zentroko taldeak eta Itxaso Díaz-ek osatua.

Otsailak 4 > Martxoak 25
Asteartero

19:00
Bastida Aretoa

4€ / 3€ Az Txartelarekin

festhome.com



*La dolce vita* (1960). Arg: Cineteca di Bologna

**Urtarrilak 8 > Martxoak 12**
**Asteazkenak eta ostegunak**

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

# Zinemaren historiako 50 harribitxi

## Familia istorioak

*Zinemaren historiako 50 harribitxi* zikloan aurreikusi ahal zen bukaerara iritsi gara (berrogeita hamar batu ditugu). Iritsi ere iritsi gara film gogoangarrien bilduma honetan zehar egindako ibilbideari, arreta handiagoa merezi duten beste film batzuez zipriztinduta, ekin genion arintasun berarekin. Azken tarte honetan, familia-harremanak izango dira hari gidaria -edo aitzakia-. Eta aukera ezin hobea da daukaten iraupenagatik programazio-parrilletan nekez aurkitu ahal diren izenburuak pantaila handirako berreskuratzeko.

Hasteko, Zinemaren Historiako izen nagusi bat: AEBko Michiganen jaiotako Francis Ford Coppola gidoilari, ekoizle eta zuzendaria -Sofia eta Roman Coppolaren aita-, ustelkeriari, mafiari eta famigliari eskainitako saga ahaztezin horietako baten egilea. Marlon Brando, Al Pacino, Robert Duvall eta Diane Keaton aktoreek antzeztuta, Gordon Willis handia argazki arduradun zela, eta Nino Rota maisuaren musikarekin, *The Godfather* (1971) inoiz izandako filmik arrakastatsuena bihurtu zen bere garaian. Gaur egun oraindik ere daukan indarra orduan bildutako diruak baino arrazoi ahaltsuagoak eragindakoa da.

Familia da ardatza -eta anaia, neba, arreba, ahizpak bereziki- *Hotaru no haka* (IsaoTakahata, 1988) eta *Jeux interdits* (René Clément, 1952) hunkigarrietan ere. Ghibli japoniar estudio ospetsuaren animaziozko film luzean, Akiyuki Nosakaren eleberri laburra moldatu zuten Hiroshimako bonba atomikoaren ostean bizirik iraun zuten bi anaiak jasan beharko zuten proba latza irudikatzeko. Hori bezain gogorra da, François Boyerren eleberriaren egokitzapenean, Brigitte Fosseyk antzeztutako Paulette neskatoak aurrez aurre duen egoera; Dollé klanean aurkituko du gerrak eragin dion sufrimendurako kontsolamendua.

Familiako bizipenei buruz hitz egiten hasiz gero, zinemazalea den inork ez luke aipatugabe utziko Yasujiro Ozuren izena. Eszenaratzeari buruzko haren ikusmolde bakar eta errepikaezinarekin, hainbat hamarkada eman zituen gai berari buruz praktikatzen; AzkunaZentroa - Alhondiga Bilbaora ekarri duena, hain zuzen. Hori dela eta, haren azkeneko lana programatu dugu: *Sanma no aji* (1962) izeneko maisulana.

Azkenik, zikloa ixteko, zabaldu zuen zuzendari bera aukeratu dugu: Federico Fellini. Marcello Mastroianni ahaztezina protagonista duela, *La dolce vita* (1960) filmak `familien´ kontzeptua ezesten du, zuzendariak egin ohi zuen eran. Hori berresteko, aski da pelikulan Steiner (Alain Cuny) pertsonaia protagonista duen atala arretaz ikustea.

Rubén Corral

# ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI PROGRAMA

## 2001: A space odyssey (1968)

2001: Espazioko odisea

**Urtarrilak 8, asteazkena / 17:00**
**Urtarrilak 9, osteguna / 19:00**



Arg.: Everett Collection

Zinemaren historiako zientzia-fikzioko filmen artean nagusia denak gizateriaren historiako zenbait aldi kontatzen dizkigu, nahiz iraganekoak nahiz etorkizunekoak. Duela milioika urte, 'homo sapiens-a' agertu aurretik, primate batzuek monolito bat aurkitu zuten, eta goragoko inteligentzia estadio batera eraman zituen. Milioika urte geroago, beste monolito bat dago, ilargi batean lurperatuta, eta zientzialarien interesa bereganatu du. Amaitzeko, NASAren HAL 9000 misioan, adimen artifiziala duen makina bat arduratzen da tripulatutako espazio-ontzi bateko sistema guztiak kontrolatzeaz.

139' / Erresuma Batua
**Z:** Stanley Kubrick
**A:** Keir Dullea, Gary Lockwood, William Sylvester, Daniel Richter, Leonard Rossiter, Margaret Tyzack, Robert Beatty

## Gentlemen prefer blondes (1953)

Jaunek ilehoriak nahiago dituzte

**Urtarrilak 15, asteazkena / 17:30**
**Urtarrilak 16, osteguna / 19:30**



Arg.: Imdb

Lorelei eta Dorothy kantariak itsas bidaia batean doaz Estatu Batuetatik Parisera. Bata ilehoria eta bestea beltzarana izaki, bidaiari guztiak limurtuko dituzte beren ederrez eta xarmaz. Loreleik dirudun batekin ezkondu nahi du, baina oztopo bat dago: bere senargaiaren aitak detektibe bat kontratatu du zein joko darabilen jakiteko.

91' / 35mm / Estatu Batuak
**Z:** Howard Hawks
**A:** Marilyn Monroe, Jane Russell, Charles Coburn, Tommy Noonan, George Winslow, Elliott Reid, Taylor Holmes

## E.T.: The extra-terrestrial (1982)

E.T. estralurtarra

**Urtarrilak 22, asteazkena / 17:30**
**Urtarrilak 23, osteguna / 19:30**



Arg.: Getty Images

Beste planeta bateko izaki txiki bat Lurrean geratu da, bere espazio-ontziak itzulerari ekin baitio bera ahazturik. Bakarrik dago, eta beldurrak jota, baina mutil baten lagun egingo da, eta horrek bere etxean ezkutatuko du. Mutilaketa anai-arrebek nola edo hala bilatu nahi dute modua, estralurtarra bere planetara itzul dadin, zientzialariek eta poliziak bera aurkitu baino lehen.

115' / Estados Unidos
**D:** Steven Spielberg
**R:** Henry Thomas, Dee Wallace, Robert MacNaughton, Drew Barrymore, Peter Coyote, C. Thomas Howell, K.C. Martel

## The Godfather (1972)

Aitajauna

**Otsailak 5, asteazkena / 17:30**
**Otsailak 6, osteguna / 18:30**



Arg.: Paramount Pictures

Amerika, 40ko hamarkada. On Vito Corleone New Yorkeko mafiako bost familia nagusietako bateko burua da, errespetu adina beldur pizten duena. 'Il consigliere' Tom Hagen-en aholkuei entzungor eginez, Corleonek uko egiten dio drogen negozioan parte hartzeari, eta beste banda bateko buruak bera hiltzeko agindua ematen du. Mafiako familien arteko gerra bortitza piztuko da orduan.

175' / Estados Unidos
**D:** Francis Ford Coppola
**R:** Marlon Brando, Al Pacino, James Caan, Robert Duvall, Diane Keaton, John Cazale, Talia Shire

## Hotaru no haka (1988)*

Ipurtargien hilobia

**Otsailak 12, asteazkena / 17:30**
**Otsailak 13, osteguna / 19:30**



Arg.: Filmaffinity

Bigarren Mundu Gerra. Seita eta Setsuko Koben bizi den japoniar itsas armadako ofizial baten seme-alabak dira. Egun batez, bonbardaketa batean, ez dute lortzen bunkerrera garaiz iristea, han zain baitute ama. Amaren bila hasi, eta larri zaurituririk aurkitzen dute eskolan, larrialdietako ospitale bihurtu baitute.

93' / Japonia / Animazioa
**Z:** Isao Takahata
*Helduentzat

## Jeux interdits (1952)

Joko debekatuak

**Otsailak 19, asteazkena / 17:30**
**Otsailak 20, osteguna / 19:30**



Arg.: Studio Canal

1940. urteko ekaina. Ehunka frantses doaz Frantziako hegoalderantz, exodo etsian, besteak beste, Paulette txikia eta haren gurasoak. Nazien hegazkinek bonbak jaurtitzen dituzte, errukirik gabe. Pauletteren gurasoak eta txakurra hiltzen dira erasoan. Baten batek ibaira jaurtitzen du txakurraren gorpua. Neskatoak haren atzetik jarraitzea erabakitzen du eta Michelekin egingo du topo. Hamaika urteko mutiko honek gurasoen landetxera eramango du Paulette, eta han oso harrera ona egingo diote.

86' / Frantzia
**Z:** René Clément
**A:** Georges Poujouly, Brigitte Fossey, Amédée, Laurence Badie, Madeleine Barbulée, Suzanne Courtal, Lucien Hubert

## Sanma no aji (1962)

Sakearen zaporea

**Martxoak 4, asteazkena / 17:30**
**Martxoak 5, osteguna / 19:30**



Arg.: Imdb

Shubei Hirayama alarguna da, eta hogeita lau urteko alabarekin bizi da. Zaharra eta bukatuta sentituz, ohartzen da zein bidegabea den neska gaztea bera zaintzeko bakarrik bizitzea, eta, hala, ezkontzea erabakitzen du. Hasieran, alabak ez du bera utzi nahi, baina, azkenean, egin egingo du. Orduan, sakearen likorea izango da Shubeirentzat bakardadearen babeslekua.

112' / Japonia
**Z:** Yasujirō Ozu
**A:** Chishu Ryu, Shima Iwashita, Shinichiro Mikami, Keiji Sada, Mariko Okada, Nobuo Nakamura, Teruo Yoshida

## La dolce vita (1960)

**Martxoak 11, asteazkena / 17:30**
**Martxoak 12, osteguna / 18:30**



Arg.: Cineteca di Bologna

Ilusioa galdutako kazetari erromatarra da Marcello Rubini, ospetsuen bila beti, bere garaiko burgesiak egiten dituen gaueko festetatik mugitzen dena. Irteeretako batean jakingo du zinema munduko Sylvia diva ezaguna iritsiko dela Erromara; hala, bada, albiste on bat lortzeko aukera paregabea delakoan, gauez jarraituko dio, hiriko hainbat lekutatik.

175' / Italia
**Z:** Federico Fellini
**A:** Marcello Mastroianni, Anita Ekberg, Anouk Aimée, Yvonne Furneaux, Alain Cuny, Nadia Gray, Annibale Ninchi

### INFORMAZIOA

**Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpitituluatuak (JBGA).**

**Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.**

**+ Info: azkunazentroa.eus**

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

**LABURDURAK**
**A: Aktoreak | Z: Zuzendaria**



*Anthropocene: the human epoch* (2018)

Urtarrilak 8 > 22
Asteazkenak eta ostegunak

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

# Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz

**Aro post-digitalean dugun errealitateari buruzko zientzia fikzio, utopia eta distopiei buruzko zikloa, *Open Codes. We are data* erakusketaren esparruan sartu**

Playtime Audiovisuales-ek komisariatua (Natalia Piñuel eta Enrique Piñuel)

*Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz* Zinematekaren zinema garaikideari buruzko zikloa, azken zatian sartu da, eta zientzia-fikzioko bi figurari egingo die omenaldia: batetik, Ursula K. Le Guin idazleari eta haren fantasiazko munduei; eta, bestetik, *De Natura* (1983) eta *Evolution* (2015) lanen zuzendaria den Lucile Hadzihalilovic-i. Gainera, urtarrilean fikziozkoak ez diren bi film luze proiektatuko dira, eta, horiekin, gogoeta egingo dugu orainaldiaz, 'etorriko dena' ulertu ahal izateko. Lehena, Anthropocene: *The Human Epoch* (2018), Jennifer Baichwal, Nicholas de Pencier eta Edward Burtynskyk zuzendua; eta bigarrena, *Estado de Malestar* (2018), María Ruido artista eta ikertzailea protagonista duena.

*Zinema irekia. Etorkizun berria asmatzen* zikloa harremanetan dago urtarrilaren 26ra arte Erakusketa Aretoan ikusgai izango den *Open Codes. We are data* erakusketarekin. Erakusketak gure bizimodua azpikoz gora jartzen ari diren teknologia disruptiboen dimentsio artistikoak ikertzen ditu. Zinemako programa honek areago zabaltzen du begirada hori gaur egungo gaietara, ikus-entzunezko formatu desberdinetan etorkizunari, zientziari eta arte bisualei pultsua hartzen dieten gaietara.

Aro post-digitalean dugun errealitateari buruzko zientzia fikzio, utopia eta distopiei buruzko zikloaren komisarioa Playtime Audiovisuales da (Natalia Piñuel eta Enrique Piñuel). Artelanen sorta bat da, etorkizunaren inguruan gogoeta egiteko, era kolektiboan eta genero-ikuspegitik. 'Orainetik' abiatuta, beste mundu batzuk izan daitezkeela birpentsatzeko; baina, mundu horiek egungo gizartetik eratorriak izango direnez, kontzientzia eta jarrera kritikoa izan behar ditugu.

**PLAYTIME AUDIOVISUALES:** Natalia Piñuelek eta Enrique Piñuelek 2007an sortutako plataforma da, ikus-entzun garaikidearen hedapenari eskainia, eta, bertatik, arte-zentroentzako eta kultura-erakundeentzako proiektu kuratorialak gauzatzen dituzte. Programatzaile gisa ere lan egin dute zinema eta musika jaialdietan, hala nola: Esperimenta Club, S8 Zinema Periferikoaren Mostra eta Granadako errealizatzaile Gazteen Jaialdian.

# ZINEMA IREKIA. ETORKIZUN BERRIA ASMATUZ PROGRAMA

## 8. saioa
## Lucile Hadzihalilovic: distopia feministak

Ursula K. Le Guin idazlearen iritziz, fikzioak bere baitan dauka aldatzeko ahalmen bat, errealitatean eragitekoa; buru-gogoak irekitzeko, gure pentsamenduak aldarazteko eta errealitatea ulertzeko aukera berri ugari eskaintzeko indarrari zor dio ahal hori. Fikzioari esker, 'esnatu' egiten gara. Sarrerako azalpen honek Lucille Hadzihallilovic zinemagileari eskainitako saioaren atariko moduan balio digu.

**De Natura (1983) + Evolution (2015)**

Urtarrilak 8, asteazkena
20:00 / Golem Zinemak

Urtarrilak 9, osteguna
17:00 / Golem Zinemak

### De Natura (1983)



*De Natura* bat-bateko poema bat da, bi neskatok naturaren erdian egindako pasiera lasai eta alaia, helduen begiradatik aldenduta. Baina, une batean, alaitasuna desagertzen hasiko da arian-arian eta amets-irudia nostalgia bihurtuko da. Zuzendariaren filmografian ohikoak diren gaiak ageri dira film labur honetan, hala nola haurtzaroa, heldu bihurtzeari diogun beldurra eta gainezka ageri den natura. Irudi eder onirikoz jositako filma bada ere, ikusi ostean sentsazio bitxia, deserosoa eragiten du.

6' / GB (elkarrizketarik gabe) / Errumania, Frantzia
**Z:** Lucille Hadzihalilovic
**A:** Maria Manta, Mihaela Manta

### Evolution (2015)



Itsaso ondoko urbanizazio batean amarekin bizi da 11 urteko Nikolas. Erietxea da jarduera-zentro bakarra han. Esperimentu mediko bitxiak egiten dizkiete herriko ume guztiei, eboluzioko etapak atzekoz aurrera iraultzeko asmoz. Ingurune arrotz batean murgiltzeko esperientzia bat da, espezimen biologiko moduan gure eboluzio-diskurtsoa zuzentzen duten arauak deseraikitzen dituena. Film ausarta da, Lucileren zinema osoa bezala, eta deserosoa gerta daiteke, beste mundu eta izan litezkeen beste agertoki batzuk irudikatzean, normatibitate eteropatriarkaletik kanpo.

81' / JBGA / Frantzia, Belgika, Espainia
**Z:** Lucille Hadzihalilovic
**A:** Max Brebant, Roxane Duran, Julie-Marie Parmentier

## 9. saioa
## Lur Planeta

**Urtarrilak 15, asteazkena**
**19:30 / Golem Zinemak**

**Urtarrilak 16, osteguna**
**17:30 / Golem Zinemak**

### Anthropocene: the human epoch (2018)



Industria Iraultzaz geroztik, Homo Sapiens izeneko gure espeziea bihurtu da Lurreko ekosistemaren indar eraldatzailerik handiena. Praktika kapitalisten, ikatzaren eta petrolioaren kulturen, eta ustiatzeko baliabidetzat ekosistema aldatzearen eraginez, animaliak eta landareak boladaka desagertu dira ugari, eta berotze globala gero eta handiagoa da. Nola gertatu ahal izan da? Edward Burtynsky argazkilari entzutetsuaren, eta Jennifer Baichwal eta Nicholas de Pencier zuzendari sarituen arteko elkarlanetik sortutako hirugarren filma da, *Manufactured Landscapes* (2006) eta *Watermark* (2013) pelikulen ondokoa. Toronto, Sundance eta Berlingo jaialdietan aurkeztu da.

87' / JBGA / Kanada
**Z:** Jennifer Baichwal, Nicholas de Pencier y Edward Burtynsky

## 10. saioa
## Egungo ezinegonak

**Urtarrilak 11, Larunbata**
**19:30 / Auditorioa (Soinu banda zuzenean Edredón taldearen eskutik)**

**Urtarrilak 22, asteazkena**
**20:00 / Golem Zinemak**

### Estado de malestar (2018)



María Ruido zinemagile artistak saiakera bisual bat proposatu du, errealismo kapitalistaren garaian sintomatologia sozialaren eta sufrimendu psikikoaren inguruan. Proiektuaren oinarri gisa, Mark Fisher, Franco Berardi eta Santiago López Petiten testuak erabili ditu Maríak, bai eta filosofoekin, psikiatrekin eta erasandako edo diagnostikatutako pertsonekin izandako elkarrizketak ere, batik bat Madrilgo 'InsPiradas' aktibista kolektibokoekin izandakoak. Pelikula zikloaren barruan proposatu da, bizi dugun errealitate kapitalistan norbanakoaren oraingo egoeraren aurrean egindako gogoeta gisa, eta etortzekoa den aro postdigitaleko gizarte berri batera iristeko eraikuntza aldi berean 'itxaropentsu' bezala.

65' / GB / Kanada
**Z:** María Ruido
**M:** Edredón

### INFORMAZIOA

**Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.**

**+ Info: azkunazentroa.eus**

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

### LABURDURAK

A: Aktoreak | M: Musika | Z: Zuzendaria
GB: Gaztelaniazko Bertsioa
JBGA: Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz azpititulatua

# Golem Arte 2020ko Negua

Zinema eta arte zikloa

Golem Alhóndigak zinema- eta arte-dokumentalen ziklo berria programatu du hiruhileko honetarako, garai guztietako artisten unibertso pertsonalari buruzko begirada ezohikoa eskaintzeko asmoz.

Urtarrilak 21 > Martxoak 17
Asteartea
16:30, 18:30 eta 20:30
6€
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

## PROGRAMA

Urtarrilak 21 eta otsailak 4
Tintoretto un rebelde en venecia

Urtarrilak 28
Pintores y reyes

Otsailak 11
Van Gogh y Japón

Otsailak 18 eta martxoak 3
Gauguin en Tahiti. Paraíso Perdido

Martxoak 10 eta 24
Frida viva la vida

Martxoak 17
Michelangelo infinito

# Bilbao Surf Festival

*Momentum Generation*

Bilbao Surf Festivalek *Momentum Generation* aurkeztuko du Azkuna Zentroan, azken hamarkadetako dokumentalik onenetako bat.

Surfaren inguruko ikus-entzunezko sorkuntzak agerian jartzen du estetikatik eta hondartzako estereotipoetatik harantz doan mundua. Jende askorentzat, bizimodu bat da, eta halaxe erakusten du *Momentum Generation*-ek. Kirol honen inguruko bizipenei buruz egin den dokumentalik onenetako bat da, eta gogoangarriak diren surflarien belaunaldi oso baten bizitza islatzen du.

Urtarrilak 30, osteguna
17:30 - 19:30
Auditorioa
5€
Sarrerak:
bilbaosurffilmfestival.eus
info@bilbaosurffilmfestival
Informazio gehiago:
bilbaosurffilmfestival.eus



Auditorioa

STEVE PAXTON
Programa publikoa

# Jurij Konjar

## *Flat + Satisfyin Lover* (Steve Paxton) & *Variaciones Goldberg* (Jurij Konjar)



Arg.: Hans Schubert. *Goldberg Variations* (2010)

*Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* erakusketaren barruan, artistaren hiru obra historiko aurkeztuko ditugu, Jurij Konjar koreografo eta dantzari esloveniarrak hartuak.

Lehenengo biak Judson Dance Theatre mitikoan izan zituen hasierako urteetakoak dira, eta kolektibo horrek egin zuen galdera nagusietako bat dute ardatz: Zer da dantza?. *Flat* (1964) solo laburrean, Steve Paxtonek ekintza soilak aztertzen ditu, hala nola ibiltzea, esertzea, jarrerak hartzea edo arreta jartzea. *Satisfyin Lover* (1967) lanak esplorazio horrekin jarraitzen du, 42 laguni gonbit* egiten baitie, agertokiaren alde batetik bestera ibiltzera, jarraibide erraz batzuk betez.

*Variaciones Goldberg* obra geroagoko aldi batean sortu zen, Kontaktuko Inprobisazio ospetsua garatu ondoren. Obra inprobisatu horretan, Paxtonek Cunningham-en ondorengo dantzako kezka nagusietako batzuk sartzen ditu, Glenn Gould-ek interpretatutako Bach-en izen bereko konposizioarekin mugimenduan dagoen elkarrizketa batean. Jurij Konjar bere behaketetatik, bideo-grabazioetatik eta eguneroko praktika luzetik abiatzen da jatorrizko lana berriz hartzeko, zati batean Steve Paxton-ek eta Lisa Nelsonek lagunduta. Paxton-en legatuarekin bat etorrita, obra birsortu egiten da aurkezten den bakoitzean, interpretatzailearen, musikaren eta publikoaren arteko topaketa gisa.

* *Satisfyn Lover* piezan parte hartzeko bidali e-maila: azkunazentroa@azkunazentroa.eus



Arg.: Hans Schubert.

**JURIJ KONJAR** (Ljubljana) Les Ballets C de la B konpainiako dantzaria izan da, bere obraren sortzailea izateaz gain. 2009an, Steve Paxtonen *Goldbergen Bariazioak* grabazioa sakon behatu zuen, eta geroago sortu ziren elkarrizketek inprobisazio pertsonalaren praktika garatzea eragin zuten. Bakarkako lanak sortu eta interpretatu ditu batez ere, eta, Tuning Ensemble-rekin jardutez gain, Lisa Nelson-ekin lankidetzan aritu da Goldbergen Oharrak argitalpenean, eta Steve Paxton-ekin ere bai, *Bound* (1982) eta *Flat* (1964) soloen berreraikuntzan, bai eta *Satisfyin Lover* (1967) lanean ere (1967). *Quicksand* (2016) sorkuntzan ere parte hartu du dantzari gisa.

**Otsailak 21, ostirala**

19:00
Auditorioa

10€ / 8€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

**FITXA ARTISTIKOA**

***Flat* (1964)**

**Koreografia:**
Steve Paxton
**Dantza:**
Jurij Konjar

***Satisfyin Lover* (1967)**

**Koreografia:**
Steve Paxton
**Koordinazioa**
Jurij Konjar
**Dantza*:**
Bilboko 42 pertsona boluntarioak

***Variaciones Goldberg* (1986/2010)**

**Dantza:**
Jurij Konjar
After Steve Paxton
**Musika:**
Johann Sebastian Bach-en *Goldberg-en Bariazioak*, Glenn Gould-ek interpretatuak (1981)
**Eskerrak:**
Steve Paxton eta Lisa Nelson
**Produkzioa:**
Jurij Konjar
**Koprodukzioa:**
Tanzquartier Wien
**Laguntzaileak**
Esloveniako Kultura Ministerioa

jurijkonjar.com

Bisita ezazu gure erakusketa-aretoan ***Steve Paxton. Drafting Interior Techniques***, Steve Paxton dantzari, koreografo eta inprobisatzaile estatubatuarraren lanari eta legatuari eskainitako lehen atzera begirakoa. Romain Bigé eta João Fiadeiro dira komisarioak. Informazio gehiago 18. or.

STEVE PAXTON
Programa publikoa

# Ion Munduate

## *Goldberg Versions*



Ion Munduate. *Goldberg Versions*

Ion Munduate artistak *Goldberg Versions* pieza aurkezten du *Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* erakusketaren barruan. *Goldberg Versions* lanean Steve Paxtonek 1985. urtetik 1992. urtera bitartean dantza bat-batekoetatik sortuz garatu zuen jatorrizko lanean oinarritutako lan prozesua erakusten da. Paxtonek Walter Berdinekin batera grabatu zuen bideoaren inguruan egin du lan Ion Munduatek, Ana Buitrago koreografoarekin elkarlanean.

Artistak deskribatzen duen moduan, «*Goldberg Versions* lanean badaude lehenagoko nire *Translation* proiektuarekiko elementu komun batzuk, eta horiek osatu dute pieza berri honen oinarria: mugimenduaren oharrak idaztea eta lortu nahi dena gauzatzera iristeko jarraibide jakinak idatziz jasotzea, eta, azkenik, material koreografikoa osatzeko lehendik badagoen pieza batean oinarritzea».

Bachen *Goldberg Bariazioetako* musika, Steve Paxtonek Bariazioen inguruan sortutako mugimendu-pieza eta Glend Gouldek pianoz egindako interpretazioa dira, gehitu duenez, gogoeta egiteko eta bilatzeko hiru elementu nagusiak. Zehaztu duenaren arabera, «Hiru une horien artean zerbait askatzen da bien artean; Gouldi dagokionez, Bachen musika ulertzeko moduan muturrerainoko teknikan, eta, Paxtoni dagokionez, mugimendua, inprobisazioa eta musika ulertzeko moduan, biak ala biak exekuzioaren zailtasuna gainditzen ari direnaren itxura gauzatzen duen soiltasun, arintasun eta jarioarekin».

**ION MUNDUATE** (Donostia, 1969). Donostian, Madrilen eta Parisen egin zituen ikasketak. 1994an, elkarlan artistiko bizi-biziari ekin zion Blanca Calvorekin batera, eta hainbat artelan izan dira horren emaitza. Era berean, 'Mugatxoan' sortu zuten 1998an, ikertzeari eta sortzeari eskainitako prestakuntza proiektua. Haien performanceak eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu izan dira; hona hemen: *GoGo, Caja Roja y Lucía con zeta* (1998), *Flyball, Boj de largo* (2000), *Astra Tour* (2003-2004), *Extras de artificio* (2005), *BAT, Beautiful Animals Trying* (2006), bai eta *Sin título, en colores* (2010), *Translation* (2013-2016) Las plumas (2017) eta Alfabeto Móvil (2017) ere.

2015ean Gure Artean saria jaso zuten 'Mugatxoan' proiektuarekin, arte bisualen arloan egindako jarduera horrekiko aitortza bezala. Tailer eta mintegi ugaritan izan da irakasle, bai eta artista gazteen hainbat piezaren tutorea ere.

**Martxoak 12, osteguna**

**20:00**
**Lantegia 1**

**8€ / 6€ Az Txartelarekin**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

**FITXA ARTISTIKOA**

Ion Munduaterekin
**Mugimendu-laguntzailea:**
Ana Buitrago
**Arte- eta ekoizpen-laguntzailea:**
Blanca Calvo

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren I. Dantza Ekoizpenaren laguntzarekin eta Dantzagunearen bultzadarekin
Obra Tabakaleran ekoitzi da, Tabakalerak berak emandako laguntzarekin

# Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter Mathiassen

Dantza Garaikideko Egonaldia 2019



Sigrid Stigsdatter Mathiassen. Foto: Dansateliers



Jaiotz Osa. *Suddenly III*

Jaiotz Osa euskal koreografoak eta Sigrid Stigsdatter Mathiassen koreografoak aurkeztuko dute 2019ko dantza garaikideko egonaldian Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon eta Dansateliers Rotterdam zentroan egin dituzten proiektuen emaitzak, Holandako dantza garaikidea sortzeko eta erakusteko zentroarekin elkarlanean eta trukean aritzeko egindako akordioari esker sortutako lanak. Bi artistek Bilbon aurkeztuko dituzte piezak, Moving Future Festival 2020 Herbehereetako Dantza Garaikideko Jaialdian eszenaratu ondoren.

Jaiotz Osa dantzaria eta koreografoa OSA+MÚJIKA konpainiako kidea da. Jaiotz Osa eta Xabier Mujikaren topaketa artistikoaren ondorioz sortu zen konpainia, eta sormenezko bi mundu batzen ditu, dantza eta eszenografia/jantziak. *Loser* piezan, hausnarketa egiten du milenialez, beren harreman sozialez, sareekiko duten mendekotasunaz eta gizartearen itxaropenez: «Berezia nintzela esan zidaten denbora guztian. Eta esan zidaten nahi nuen guztia edukiko nuela bizitzan, nahi izate hutsagatik. Mundu errealean erori nintzen, eta berehala jakin nuen ez naizela berezia, eta ez dudala desiratzen dudan guztia edukiko, nahi izate hutsagatik».

Euskal dantzariarekin harremanetan, Sigrid Stigsdatter Mathiassen koreografo, performer eta bokalistak (1990, Danimarka) solo modura aurkeztuko du bere proiektuaren emaitza: mugimenduen eta ahotsaren arteko nahasketa bat, sortzailearen lanaren abiaburu dena, hitzak eta mugimenduak esploratzen dituena, errealitatearen eta imajinazioaren arteko mugak lausotzeko tresna gisa.

Piezaren 'work in progress'ean, artistak honela deskribatu zuen bere proiektua: «Gogoan ditut historiak, pertsonaiak eta fikzioak. Gogoan dut fikzioak eraikitzea eta berriz eraistea. Gogoan dut irudi zail bat izatea gorputz zail batean, dantzaren bidez bidaiatzen dena, bihotza zabalik eta gogo kritikoz».

**Martxoak 26, osteguna**

19:30
**Lantegia 1**

**8€ / 6€ Az Txartelarekin**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

**Elkarlanean:**

dans ateliers

Laguntzailea:

Sabadell Fundación

Fundación Banco Sabadellek Egonaldi Artistikoen Programa babestendu, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.

Urtarrilaren 1ean gure **Egonaldi Artistikoen Programaren** deialdia egingo da, arte bisual eta dantza garaikideko proiektuak aurkezteko. Informazio gehiago 76. or.

# Álex Rigola

## *Macho Man*

Indarkeria matxistari buruko antzerki-instalazioa eta dokumentua




*Macho Man*

Àlex Rigola dramaturgoaren azken proposamenak efektu dramatikorik handiena lortzen du behar den dosia erabilita. Lana *Macho Man* da, martxoan Azkuna Zentroan aurkeztu genuen indarkeria matxistari buruko ikuskizun-instalazioa. Sarritan emakumeen bizitzarekin amaitzen duten tratu txarren uztarriaren azpian ikaratuta bizi diren emakumeak ikusteko, haiekin gogoeta egiteko eta enpatizatzeko gailu bat.

*Macho Man* bidaia eszenikoak gonbit egiten die pertsonei indarkeria matxistaren aurpegi desberdinak erakusten dituzten espazioetatik mugitzeko: bikotearen esparrua, familia, lana, gizartea eta arlo judiziala. Ibilbide interaktiboa da, 12 gelez osatutako artefaktu dramaturgiko batean barrena. Ibilbidea guztiz beldurgarria da, ibilbideak irauten dituen 50 minutuetan ikusten eta entzuten den guztia egia hutsa baita.

Ikuslea entzungailu batzuekin sartuko da instalazioan, eta, horien bidez, indarkeria matxista jasan duen baina anonimatuan egon nahi duen emakume aktore batek gidatuko du ibilbidetik. Aukera izango dugu lekukotasun* beldurgarriak eta benetako elkarrizketak, datuak, testuak, objektuak, galderak, epaiak, adierazpenak, fotografiak, liburuak, bideoak entzun eta ikusteko… *Macho Man* emoziozko bidaia espazio eszeniko batetik mugitzen da, arte eszenikoak eta plastikoak, psikologia eta dokumentazioa uztartuz.

«Proiektu honekin, bide berriak bilatzen ditugu muturreko matxismoaz kontzientzia hartzeko, arte eszenikoetako, arte plastikoetako, psikologiako eta dokumentazioko jakintzak bateratuz. Ikusleak aktibatu nahi ditugu, dokumental, informazioko flyer edo erakusketak batek egingo lukeen horretatik harantz joz» azaldu du artistak.



**ÀLEX RIGOLA** (Barcelona 1969). Madrilgo 'Teatros Del Canal'eko zuzendarikidea. 2017-2018. 'La Biennale Di Venezia' antzerkiko sekzioko zuzendaria. 2010-2016. Bartzelonako 'Teatre Lliure'ko Zuzendaria. 2003-2011.

*Dokumentu-antzerki instalazio honek indarkeria matxistaren benetako testigantzak jasotzen ditu. Pertsona batzuen sentsibilitatea mindu dezake. Ez da gomendagarria 15 urtetik beherakoentzat.

Martxoak 2 > 15
Astelehena > Igandea

17:00 - 21:00
Emanaldiak 30'-ro
Iraupena: 55' - 85'
Banako sarrera:
10€ / 8€ Az Txartelarekin
Taldeak (6 pertsona gehienez): 40€
Informazio gehiago eta sarrerak:
Az Info eta azkunazentroa.eus

11:00 - 14:30
Ikastetxeekin, elkarteekin edo kolektiboekin hitzartua.
Izen-ematea:
azkunazentroa@azkunazentroa.eus

FITXA ARTISTIKOA

**Zuzendaritza eta sorkuntza**: Àlex Rigola / **Edukien aholkularia eta indarkeria matxistan aditua den psikologoa**: Alba Alfageme Casanova / **Zuzendaritzako laguntzailea**: Alba Pujol / **Zuzendaritzako laguntza**: Irene Vicente Salas / **Dramaturgia-taldea**: Ferran Dordal, Alba Pujol, Irene Vicente Salas eta Àlex Rigola / **Espazioaren diseinua**: Max Glaenzel / **Espazio eszenikoko laguntza**: Judit Colomer / **Soinu-diseinua eta QLab**: Igor Pinto / **Bideo-edizioa**: Alejo Levis / **Bikoizketako grabazioa**: Beatgarden (Pau Romero) / **Ingelesezko bikoizketako grabazioa**: Molly Malcom / **Soinu-teknikaria**: Ferran Puertolas / **Teknikari elektrikoa**: Àngel Puertas Sala / **Muntaketako arduraduna**: Raul Vilasís / **Eraikuntza**: Pascualín estructures i Oscar Hernández 'Ou' / **Itzulpena eta zuzenketa**: La correccional. Serveis textuals / **Ekoizpen exekutiboa** Clara Aguilar, Jordi Puig 'Kai' eta TITUS ANDRÒNIC S.L. / **Banaketa**: Art Republic (Iva Horvat)

alexrigola.com

Bilbao

**Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren eta Bilboko Udaletxeko Berdintasun Sailaren arteko elkarlaneko proiektua**

# Lekuona

## *Break Fast Live*



Lekuona artistak, berez diziplina anitzekoa izanik, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon aurkeztuko du *Break Fast Live* album berria, bideo-sorkuntzako eta dantza garaikideko elementuak jaso dituen show minimalista eta sentsualean. Elektro-pop kontzeptualeko proposamena ingelesez, ironiaz eta kritika sozialez josia.

Roberto Calvo musikaria izan da ekoizlea Los Angelesen nahastutako Break Fast Live album berri horretan; Lekuonak proposamen sendoa ondu du:

Ilunetik argitara agertu, bere burua oparitzeko eta besteekin topo egiteko. Ibilbide pertsonal erakoa da; ezerezetik abiatuta bidaia osatu du kontzientzia sozialera iritsi arte, bere burua ezagutzean eta maitasunean zehar. Emaitzan, likidoa eta solidoa nahastu ditu, hotza eta beroa, gozoa eta gazia.

Musikagilea, kantaria, performerra, errealizadorea eta ekoizlea, arlo guztiei heltzen die *Break Fast Live* horretan; haren bigarren albumeko zuzenekoa da. Hor, *Loser* eta *Social Nerd* singleak janaurrekoak soilik dira. *Loser* doinuan sinte ilunak eta ahots grabeak darabiltza arrakasta lehenesten duen gizartean porrota aldarrikatzeko. *Social Nerd* lanean, ahots harmoniekin eta mugikorren soinuekin jokatzen du, sare sozialak neurririk gabe erabiltzearen parodia burutzeko.

Raul Santosek ekoiztutako (Najwa Nimri, la Shica) debuteko diskoa izan zuen *No Man's Land* (2014) haren ostean, pop izarraren irudikatzeko jolasean jarraitzen du artistak, nahiz eta haren proiektu berriaren biluztasunak maskararik gabeko pertsonaia bat sortzera behartzen duen, ikuslearen maila berean dardaraz hasten dena.

**Urtarrilak 17, ostirala**

**21:00**
**Lantegia 1**

**10€ / 8€ Az Txartelarekin**

FITXA ARTISTIKOA:

**Zuzendaritza**:
Lekuona
**Ahotsa**:
Lekuona
**Teklatuak** :
Diego Perinetti
**Bateria eta sekuentziak**:
Marcel Selva
**Koreografia**:
Carla Diego
**Performerrak**:
Andrea Pérez, Violeta Wulff
**Bideoa**:
Lekuona
**Fotografia**:
Jerónimo Álvarez

lekuona.es
@lekuona.es
@lekuona_
LekuonaMusic
lekuonafilms
Lekuona

# Lois



Bere logelan grabatutako kantu gutxi batzuekin soil-soilik, Lois Madrilgo eszenako proposamenen artean interesgarri, polit eta asmo handienekoetako bat bilakatu da. Haren proposamena bere C86 maiteari, 80ko urteetako cheesy musikari eta Mac DeMarcok edo Homeshakek lurrun-iragazkian pasatako jazzari eskainitako musika da.

Debuteko *Bedroom Recordings* lanarekin, azkar batean bereganatu zuen Loisek The Line of Best Fit, DIY edo BBC bezalakoen nazioarteko arreta mediatikoa, eta haren kantuek logelako hormen muga gainditzea lortu zuten; Erresuma Batuan Alex Calder-ekin hitz egin zuen telefonoz edo bere abestiak kasetean editatu zituen AEBetako Citrus City zigiluak eta biniloan Acuarelak.

2018an lehen lerrora itzuli zen berriro Lois, Londresko Stoke Newingtonen grabatu zuen *Crumb Cats* EParekin, The Proper Ornaments-eko James Hoarek eta Veronica Fallsek ekoiztuta; hor, lo-fia atzean utzi, eta soinu landuagoaren bila abiatu zen.  EP berriko bost kantu berriak grabatzean, vintage teklatuak, erritmo-kutxak, gitarrak eta baxuak erabili zituzten etengabe: bere kantuetan klasikoekiko errespetua eta izaera modernoaren ausardia batera ditzakeen edozein musikaren amets gauzatua.

Loisen iritziz, bere musika ‘slacker jazz’ kategorian sartuko litzateke.

«Jazzaren tinbreak eta indie-an ezohikoak diren akordeak ustezko axolagabekeriarekin batera doaz, berezko jarioan nagiak ateraz eta luzatuz, melodien eta konponketen edertasuna indartuz eta bizitzea egokitu zaigun garai honetan harreman pertsonal zailei buruzko hitz bikainetarako estalki ezin hobea sortuz». Muzikalia

Otsailak 14, ostirala

21:00
Kulturen Ataria
Igerilekuaren argi-zuloaren azpian

12€ / 10€ Az Txartelarekin

loisband.bandcamp.com

@loisband

@Loisband

@hello.lois

Lois

# Lasole

*Números primos*



Lasolek (1995), Granadako MC-k, bere lehen EPa aurkeztuko du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon. *Números primos* EPak hiru kanta ditu: amodio-istorio bat ematen duenaren hasiera, korapiloa eta amaiera, nahiz eta, berez, bere buruarekin izandako hizketaldi bat izan, gizarte modernoak maitatzeko orduan ezartzen dizkigun tarei burukoa.

Paolo Giordano idazle italiarraren *La solitudine dei numeri primi* (2008, Italia) eleberrian inspiratuta, artistak bere egiten du Giordanok bere obran protagonisten amodio-istorioa kontatzeko erabiltzen duen metafora.

Artistak azaltzen duenez, «Hain zuzen, amodio intimo eta atseginaren gozotasunaren eta amodio-jabetzaren ideal erromantikoaren kontrako etsipenaren eta amorruaren arteko tentsioak bilakatzen ditu bere gaiak abentura, eta, hor, entzuleak bere deabruak ere esploratu behar ditu, ez dut beren txalorik nahi; uler nazaten, hori besterik ez dut nahi».

Lasoleren hitzak, emozioz beterik, ahots intimo eta sentsual baten bidez irristatzen eta sartzen dira, eta ahots horrek gonbit egiten digu kontenplazio zuzen eta oso batera. Interpretatzaile gazteak trebetasuna erakusten du, bere kantatzeko modu gozo, delikatu eta enigmatikoarekin. Beharbada, dagoeneko ospea duten edo ez dauden artisten antza du… baina kasualitate hutsa da hori, Lasolek bere izaera baitu, bai eta ibilbide luzea aurretik ere...

Lasolek Nietzscheren dizipulutzat hartzen du bere burua. Gazte-gaztea zela, solfeoa eta pianoa ikasi zituen. Oso goiz erabaki zuen sormen-prozesuarekin aurrera egitea, eta musikan bere estiloa bilatzen hasi zen modu autodidaktan. Haurtzarotik letren zale sutsua eta irakurle amorratua izan zen, entzungailuetan babestu zuen bere burua, eleberritik saiakerara lerratu zen, eta azterketa filosofikoetan egin zuen geldialdia, etengabe planteatzen dituen gai guztiei zentzua eta erantzuna ematen laguntzen baitiote. Hiria eta hiriko jendea erreferente idilikoa dira artista honen poema-liburu osoan –«ez da ulertzen nire musika Graná gabe»–; era berean, estribu mingarri bat ere badira, sentsazioak, bizipenak eta nerabezaroko pasarteak herrestan dakartzana, eta haren bertsoak errebeldiaz blaitzen dituena.

Martxoak 13, ostirala

21:00

**Kulturen Ataria**
**Igerilekuaren argi-zuloaren azpian**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**

FITXA ARTISTIKOA:

**Interpretazioa:**
Lasole

**Ekoizpena:**
Javi Lacrema

tastethefloor.es/artist/lasole/

@soledattt

# Lluïsa Espigolé eta Erica Wise

## Portrait Concert Morton Feldman. *Patterns in a Chromatic Field* (1981) biolontxelo eta pianorako

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa



*Patterns in a Chromatic Field*. Arg.: lluisaespigole.com

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Kataluniako musika berrien lurraldeko interpretatzailerik aktiboenetako bi aurkeztuko ditu kontzertuan: Lluïsa Espigolé pianista eta Erica Wise biolontxelo-jotzailea. Biek batera Morton Feldman konpositorearen *Patterns in a Chromatic Field* (1981) interpretatuko dute, ordubete eta hogeita hamar minutuko pieza.

Hainbat hamarkada igaro ondoren, New Yorkeko konpositorearen musikak harridura sortzen jarraitzen du. Morton Feldman bere pieza instrumental bereziengatik da ezaguna; oso iraupen luzeko soinu isolatuekin daude konposatuta, instrumentuen ezohiko konbinazioetarako, kasu honetan, biolontxelorako eta pianorako.

Lluïsa Espigolé piano-jotzailea pianorako errepertorio garaikidean espezializatuta dago. Yukiko Sugawara, Nicolas Hodges, Florent Boffard eta Florian Hölscher-en ikaslea izan da; eta Hermann Kretzschmar eta Ensemble Modern-eko gainerako kideekin lan egin du, Frankfurt-eko Internationale Ensemble Modern Akademie jaialdian. Era berean, Peter Ablinger, Michael Beil eta haren belaunaldiko konpositoreekin batera egin duen lana erabakigarria izan da Espigoléren prestakuntzan. Bere jardueraren ardatza da musika garaikidea interpretatzea eta estreinatzea, bakarlari gisa, ganbera-musikan, ensembleetan edota diziplinarteko eta inprobisazio libreko proiektuetan parte hartuz. 2011. urtetik piano garaikideko eta ganbera-musikako irakaslea da Aragoiko Goi Mailako Kontserbatorioan (CSMA).

Bestalde, Erica Wise txelistak ibilbide aldakorra izan du ganbera eta orkestrako musikari, bakarlari eta irakasle gisa. Goiz piztu zitzaion ganbera-musikarekiko maitasuna, Kinhaven Music School (Vermont) bezalako lekuetan eta Tanglewood, Yellow Barn eta beste jaialdi batzuetan udak pasatzen zituenean. Wisek biolontxelo-jotzaile nagusi gisa jo du Michael Tilson Thomas eta Seiji Ozawa zuzendarientzat, besteak beste; eta birak egin ditu New World Symphony, Baltimoreko Orkestra Sinfonikoarekin. Da Camerako kontseilari artistikoa ere bada. Gure garaiko musika garaikidearekin aktiboki konprometituta dago, eta estreinaldi ugari egin ditu mundu osoan barrena, bakarlari gisa, eta Bartzelonan egoitza duen ganbera garaikideko FUNKTION taldeko kide sortzaile gisa. Gaur egun, txelo eta ganbera-musikako irakaslea da Liceu-ko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, Bartzelonan.

**Urtarrilak 22, asteazkena**

19:00
Auditorioa

8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

lluisaespigole.com

ericawise.com

# Natasha Barrett eta Mikel Iturregi

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa



Natasha Barrett. *Arg.: Jan Erik Breimo*

Otsailean, musika akusmatikoa eta soinu elektroakustikoa konposatzen dituen Natasha Barrett artista britainiarraren lana aurkeztuko dugu, Mikel Iturregi bertako artistarekin lagunduta.

Natasha Barrett-ek (UK, 1972) musika akusmatikoa eta elektroakustikoa lantzen ditu, bakarka, ensembleetan eta soinu-instalazioetarako. Normalean, beste musikari, artista bisual, arkitekto eta zientzialari batzuekin aritzen da lankidetzan. Azken 20 urteetan aditu bilakatu da Ambisonics-en eta forma espazio-musikalak sortzen.

Artista britainiar hau Oslon bizi da, eta sari ugari jaso ditu, besteak beste: Nordic Council Music Prize (Eskandinavia, 2006), Giga-Hertz Award (Alemania, 2008), Edvard Prize (2004, Norvegia), Noroit-Leonce Petitot (Arras, Frantzia, 2002 & 1998).

Barrettekin batera jardungo duen Mikel Iturregi (Sopela, 1997) pianoan konpositoreak, hiru obra aurkeztuko ditu otsailaren 5ean, eta horietako bi erabateko estreinaldiak izango dira: *Aunque tenga los huesos cubiertos de pequeñísimas orquídeas*, pianorako bakarrik; *Tres jardines ciegos*, akusmatikoa; eta azkenik, akordeoi eta elektronikarako pieza berri bat, kontzerturako espresuki idatzia.

Gainera, Gabriel Erkorekaren pianorako *Nubes* obrak, Uros Rojkoren akordeoi eta pianorako *Bagatellen* obrak eta Maurice Ravelen *Ronsard à son âme* abestiaren moldaketa bat ere interpretatuko dituzte. Antzezleak Garazi Navas akordeoia eta Mikel Iturregi pianoa eta elektronika izango dira.

Euskal musikaria Leioako Udal Kontserbatorioan eta Musikenen jaso du prestakuntza, eta konposizio espezialitateko goi-maila egin du (2015-2019), Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Zuriñe Fernández Gerenabarrena eta Stefano Scarani irakasleekin. Iturregi lankidetzan aritu da Musikene Orkestrarekin (2016), Helmut Lachenmann-en Schreiben interpretatzen, Arturo Tamayoren zuzendaritzapean. Gainera, Bilboko Udal Bandak, Musikene Sinfoniettak, Kuraia Ensembleak eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak, besteak beste, haren obrak interpretatu dituzte.

Otsailak 5, asteazkena

19:30
Lantegia 1

8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

natashabarrett.org

Kontzertu hau **Hotsetan** programaren barruan sartuta dago, hau da, hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera emateko eta sortzaileen arteko elkarketa bultzatzeko Azkuna Zentroak duen **Musika Esperimentaleko Programan**.

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA / ERAKUSKETA-SOINU INTERBENTZIOA **MAR. 2 › 22** (astl. › iga.)

# Sandra Cuesta

## *Lo adherente y el fuego*

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa



Sandra Cuesta artistak Azkuna Zentroan aurkeztuko duen *Lo adherente y el fuego* interbentzioan, Lantegia 1eko soinutik eta aretoak dituen erresonantzia-aukeretatik abiatuta, espazioan biziko da, soinuen eduki-ontzi gisa, dauden iturri ugariak anplifikatzeko.

## Gailuko espazio-egituran esku hartzen duten formak artikulatuz, artistak erakusketa muntatzeko lanetan sortutako barrunbe baten espazioa aldatuko du, soinua ateraraziko dio.

Artistaren arabera, pieza «kantuen zerrenda bat da, eta beste gauza baten aukera izateko bide ematen duten objektuetatik abiatuz eginda dago. Haren forma ez da osatuko, ezin izango dugu deszifratu, baina kanta bakoitzak zerbaitez ohartaraziko du. Honelako kantuak: *era la noche (gaua zen)*, *metálica información (metalezko informazioa)*, *mensajes al cuello (mezuak lepoan)*, *adiós (agur),* nola-halako sentsazioa sorraraz dezakete, hari-mutur guztiak lotzekoa, hor zegoen soinuari eusten dioten bolumen leunen eta soinu-anplifikadoreen bidez».

Martxoak 2 > 22
Astelehena > Igandea

16:30-20:30h
Lantegia 2

Sarrera dohainik

@sandracuestaaizkorbe

**SANDRA CUESTA**
Eskultura du abiaburu praktika artistikoan, objektuak eta egoerak ekoizteko ikuspuntu gisa. Soinuarekin zerikusia duten hainbat ingurunetan aurkeztu du lana: Zarata Fest, Le Club Larraxkito, Ertz, Mugatxoan-en Emisión 0. Besteak beste, leku hauetan erakutsi ditu lanak: Baionako Didam museoa, Corkeko The Guesthouse, Horizons Sonores, Ecuries de Baroja, Anglet eta Bilboko Okela. Orain dela gutxi, Alkolea Beach proiektuko parte izan da –erakusketako eta ikaskuntza esperimentalerako espazio bat–; horrez gain, Sácale la Miel programa zuzendu du Dabadaba kontzertu-aretoan (Donostia).

Sandra Cuestaren saioa **Hotsetan** programaren barruan sartuta dago, hau da, hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera emateko Azkuna Zentroak duen **Musika Esperimentaleko Programan**.

ARTE BIZIAK / DANTZA

# Dantzan Bilakak sorkuntza koreografikoa bultzatzen du Azkuna Zentroan

2020an eta 2021ean, Dantzan Bilaka izango da Azkuna Zentroan, sorkuntza koreografikoaren inguruko laguntzako eta testuinguru-sorkuntzako programa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bultzatua eta ADDE Euskal Herriko Dantzako Profesionalen Elkarteak koordinatua.

Dantzan Bilaka urte osoan barrena egiten da, tailer irekien bidez, tailer horiek bide ematen baitute dantza-komunitatea elkartzeko, autoaintzatespena lortzeko eta haien praktikei buruz hausnartzeko.

Jarduerak otsailaren 27an hasiko dira, euskal testuinguruko koreografo gazteei zuzendutako mugimendu-tailer batekin.

Informazio gehiago eta izena emateko:
addedantza.org

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

GIZARTEA / SOLASALDIA

# La Nuit des Idées (Ideien Gaua)

*Hizkuntzen artean, kulturen artean bizirik egon*

Hizkuntzak, haien testuingurua, oraina eta etorkizuna izango dira pentsamenduaren, hizkuntzen eta zuzenbidearen arloko ordezkarien arteko topaketaren hari gidaria, aurten La Nuit des Idées-en (Ideien Gaua) esparruan sartuta. Europako eta Atzerriko Harremanetarako Frantziako Ministerioak sustatutako urteko ekimen hau mundu osoan egiten da aldi berean.

Aurtengo leloa —*Hizkuntzen artean, kulturen artean bizirik egon*— izango da mahai-inguruaren abiapuntua, eta honako hauek parte-hartzaileak: Xabier Madariaga, Andrés Urrutia, Elise Pestre, Rosa de Diego eta Edouard Mayoral.

Urtarrilak 30, osteguna
19:30
Bastida Aretoa
Sarrera doan, gonbidapena izanez gero (jaso Az Infon)

LA NUIT DES IDÉES
TIFE TEMPORADA CULTURAL INSTITUT FRANÇAIS ESPAÑA
INSTITUT FRANÇAIS Bilbao
Liberté • Égalité • Fraternité RÉPUBLIQUE FRANÇAISE
MINISTÈRE DE L'EUROPE ET DES AFFAIRES ÉTRANGÈRES

# Loraldia

## Loraldia Jaialdia 2020

Martxoaren 14an iritsiko da Loraldiaren udaberri kulturala Azkuna Zentrora. Ekimen honen bidez, bat egiten dugu duela bost urtetik euskarazko kultura-ekoizpena sustatzeko eta hedatzeko Bilbon egiten den jaialdiarekin.

Musika, hitza, zinema eta antzerkia darabiltzaten jarduerak eta ikuskizunak, euskarazko sorkuntza artistiko garaikidea ezagutzeko eta hartaz gozatzeko.

Martxoak 19 > 28

Sarrerak: Az Info,
azkunazentroa.eus
loraldia.eus

Ikusi Loraldiaren programa osoa hemen:
loraldia.eus

LORALDIA
EUSKAL KULTURA GAUR

### PROGRAMA

**Martxoak 19, osteguna**
19:00 / 60'
**Haatik Dantza**
*Errimak bi oinetan*
Dantza eta bertsoak
Auditorioa
10€ / 8€ Lorazainak edo Az Txartelarekin

**Martxoak 20, ostirala**
20:30 / 80'
**Thierry Biscary**
*Muda*
Musika
Lantegia 1
10€ / 8€ Lorazainak edo Az Txartelarekin

**Martxoak 21, larunbata**
13:00 eta 17:00 / 30'
**Elirale Konpainia. Pantxika Telleria, koreografoa**
*O!*
Dantza garaikidea (3 urtetik aurrera)
Lantegia 1
8€ / 5€ Lorazainak edo Az Txartelarekin

**Martxoak 27, ostirala**
120'
**Loraldia Eskola**
*Haur-pastorala*
Getariako Iturzaeta Eskola Publikoa, Dima Ugaran Eskola Publikoa eta Lauro Ikastola. Gonbidatua: Ibarrekolandako Institutoko Arte Eszenikoen Bigarren Hezkuntzako Eskola
Auditorioa
5€ / 3€ Lorazainak edo Az Txartelarekin

**Martxoak 28, larunbata**
17:00 / 180'
**Atopia Role Playing Game**
*Gorordodromoa*
Rol jokoak
8€ / 5€ Lorazainak edo Az Txartelarekin
Sarrera dohainik aurrez hemen izena emanda: loraldia.eus edo atopia.eus

# Mikel Santiago

## *Nola idatzi eleberri bat astirik ez baduzu?*

Literatura-sorkuntzako prozesuari buruzko hitzaldia

Nola idatzi eleberri bat astirik ez baduzu? Posible al da?

**«Denbora (eta asko) behar baita eleberri bat amaitzeko, baina badira hurbiltze-, sormen- eta saiakera-ariketa batzuk, idazleak bere istorioa lurreratzeko».**

Mikel Santiagok idazle profesionalek eta gidoilariek prozesu hori nola jorratzen duten azalduko dio publikoari, narratibaren 'funtsezko gidetako' batzuk berraztertuz.

Topaketa adin guztietako jendearentzat da, hain zuzen, narratiba idatziarekiko jakin-mina dutenentzat.

Otsailak 6, ostirala
18:30
Bastida Aretoa
Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso Az Infon), leku guztiak bete arte

mikelsantiago.info



**MIKEL SANTIAGO**
(Portugalete, 1975). Gaztaroan rock-taldetan jotzen hasi zen, eta gero Internet bidez kontakizun eta eleberri laburrak argitaratzeari ekin zion. Horiekin best seller zerrendara iristea lortu zuen, hala Espainian nola Estatu Batuetan.

*La última noche en Tremore Beach* lanarekin egin zuen debuta literaturan. Hogei hizkuntza baino gehiagotara itzulitako aparteko gertakaria izan zen argitalpen-arloan.

Hurrengo eleberriek ere arrakasta izugarria izan dute irakurleen eta kritikarien artean: *El mal camino*, *El extraño verano de Tom Harvey*, eta *La Isla de las últimas Voces*. Haren eleberrietako batzuk pantaila handira iristeko bidean daude.

# Topaketa Posy Simmonds-ekin

Martxoaren 16an, Posy Simmonds-ekin izango dugu topaketa. Britainia Handian gaur egun dagoen marrazkilaririk onetako bat da Simmonds, eta *Cassandra Darke* argitaratu berri du. Liburu horretan, literaturara *hurbiltzeko beste saio bat egiten du, Charles Dickensen Gabonetako ipuina* gogora ekartzen duen istorio batekin.

Cassandra Darke luxuz inguratuta bizi den arte-merkataria da. Halako batean, iruzurra egitea leporatzen diote, zigorra ere jartzen diote, eta paria bihurtzen da. Une horretatik aurrera, oinazealdi luze bat hasiko da harentzat, hilketa bat ere egongo da tartean, eta berak hilketa hori argitzen parte hartu du. Simmondsek komikiaren zerbitzura jartzen du berriz fabulatzeko duen gaitasun izugarria, giza arimaren ezagutza eta, jakina, haren dohain satiriko menderaezinak, klase aberatsen kontrako kritika zorrotza eginez eta klase apalen sufrimendua nabarmenduz.

**Martxoak 16, astelehena**

19:00

Bastida Aretoa
Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso Az Infon), leku guztiak bete arte



**POSY SIMMONDS** (Berkshire, 1945) haurrentzako liburuen eta nobela grafikoen egilea da; besteak beste, *Gemma Bovery* eta *Tamara Drewe* egin ditu, biak The Guardian egunkari entzutetsuarentzat eginak eta gero zinemara egokituak.

Programa publikoa

# Laboratorio Klem

## *Pulse*



Laboratorio Klem. *La escucha errante* (2019)

*Open Codes. We are data* erakusketaren baitan, Klem Laborategiak *Pulse* jarduera aurkezten du soinu-esperientzia gisa.

*Pulse-k* bidaia bat proposatzen du Big Datako ozeano handian zehar, gure espazio-denboraren une ezberdinetan entzuten dugunaz elikatzen da. Datu espazialen soinu-ikerketa erabiltzen du ez-leku batean kokatzeko.

Klem Laborategia Zientzia & Artean oinarritutako ikerketa bisualean, performancean eta sorkuntza elektroakustikoan oinarritutako nazioarteko proiektua da. Klem laborategia diziplina anitzeko sorkuntzari eskainita dago, musikatik, ikusizko arteetatik eta diziplina artistiko guztien arteko topaketatik abiatuta (Performancea, dantza, pentsamendua, ikus-entzunezkoa, soinu-instalazioa, etab.).

Klem Laborategiko lana oinarrizko hiru ildotan garatzen da: ikerketa, prozesua, ekoizpena, hainbat errealitatetan gauzatzen direlarik.

**Urtarrilak 25, larunbata**

19:00

Open Space. Erakusketa Aretoa

Sarrera dohainik

laboratorioklem.com

EGONALDI ARTISTIKOEN PROGRAMA

Dantza Garaikidea / Praktika Artistikoak

# 2020ko deialdiak

Sorkuntza garaikideari eta ikerkuntzari babesa eta laguntza emateko, urtarrilean, Praktika Artistikoetako eta Dantza Garaikideko Egonaldien programaren deialdi berria egingo dugu.

## Dantza Garaikidea

Deialdia: Urtarrilak 1 > Martxoak 4

Dantza garaikideko egonaldia Dansateliers, Rotterdam (Holanda), sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin lankidetzan egiten da. Dantzako profesionalek zuzentzen dute eta bi alditan garatzen da. Lehen aldia Azkuna Zentroan izango da, eta pieza koreografiko bat ikertzeko eta sortzeko prozesua jorratuko du.

Bigarren aldia Rotterdamen izango da, Dansateliers-en instalazioetan. Bigarren aldi horretan, egoiliarrak Dansateliers-eko taldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango du eskura, bere lana garatzeko. Aldi berean, Dansateliers Rotterdam-ek Holandako testuinguruari lotuta dagoen koreografo bat hautatuko du, antzeko ibilbidea egin dezan, deialdi honetan hautatutako egoiliarrarekin harremanean jarrita.

Bi piezen estreinaldia batera izango da, Rotterdamen eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon

## Praktika Artistikoak

Deialdia: Urtarrilak 1 > Martxoak 17

Praktika artistikoen egonaldiak Kubako eta Euskadiko artisten arteko trukea sustatzen du, bi espazioetan ikerketa-aldi bat eginez, testuinguru artistiko desberdinetan eta bertakoetan ikerkuntza eta lana bultzatzeko asmoz.

Egonaldia Carlos Garaicoa estudioak Habanan duen Artista x Artista programarekin lankidetzan egiten da. Bilbon aukeratutako pertsonak Kuban egingo du egonaldiaren lehen zatia, urteko bigarren hiruhilekoan, eta Azkuna Zentroan bigarrena, udaren ondoren. Aldi berean, Carlos Garaicoa estudioak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Kubako artista bat hautatuko dute, eta horrek antzeko ibilbide bat egingo du, deialdi honen adjudikazioa jasotzen duen artista egoiliarrarekin harremanetan jarrita.

Praktika artistikoen egonaldiari buru emateko, bi sortzaileek lanaren erakusketa egingo dute Azkuna Zentroan.

Sabadell Fundación

Fundación Banco Sabadellek Egonaldi Artistikoen Programa babestendu, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.

etxepare

Praktika Artistikoen egonaldia euskal hizkuntza eta kultura mundu osotik zabaltzeaz arduratzen den Etxepare Euskal Institutuaren laguntza du.

# Komikien egonaldi artistiko berria

## Angoulêmek, Quebecek eta Bilbok komikien egonaldi bat jarri dute abian hiru hirietan

Hiruhileko honetan, argitaratu dira komikien sortzaileei zuzendutako egonaldi berrian parte hartzeko oinarriak. Quebeceko Maison de la littérature, Angoulêmeko Cité internatonale de la bande dessinée et de l'image eta Azkuna Zentroak - Alhóndiga Bilbaok sustatu dute ekimena.

Hiru zentroak elkarlanean ari dira, besteak beste, programa hau aktibatzeko, haren bidez hiru egilek batera garatu ahal izango baitituzte beren proiektuak hiru egoitzetan: Angoulêmen, Quebecen eta Bilbon.

Esperientzia aitzindaria da Euskadin, eta nazioarteko kultura-plataforma baten abiapuntua ere bada, lan grafikoaren esparruan sormena bultzatzeko eta egileei beren sorkuntza-prozesuetan laguntzeko xedea duena. Hitzarmenaren bidez, komikiaren esparruan sorkuntza sustatu, eta herrialde desberdinetako pertsonen arteko elkarketa bultzatu nahi da, diziplina honetan funtsezkoak diren ingurune profesionaletan, beste diziplina artistiko garaikide batzuetako artistekin konektatzeko.

Hautatutako hiru pertsonek -zentro bakoitzeko bat- egonaldi hau egin ahal izango dute hiru zentroetan, elkarren segidan, 2020ko urritik 2021eko otsailera bitartean. Lehendabizi Quebecen egongo dira, gero Angoulêmen eta, azkenik, Bilbon.

Hiru hiriak ibai batek zeharkatzen ditu, eta horrek haien nortasuna, gizarte- eta kultura-ohiturak eta ekonomia definitzen ditu. Hori izango da aukeratutako egoiliarrek garatu beharreko proiektuaren oinarria. Horrela, toki horiek, eta haien arteko elkarguneak eta desberdintasunak berraztertu ahal izango dituzte, ezagutza teknikoak eta esperientziak trukatzeaz batera. Beste zentro batzuk ezagutzeak, beren espazioa zalantzan jartzeak eta beste batzuena aurkitzeak aukera emango die beren mundu pertsonala eta sorkuntzakoa birdefinitzeko.

**Komikiaren eta ilustrazioaren aldeko apustua eta nazioarteko kultura garaikideko beste gune eta proiektu batzuekin lankidetza-sare berriak irekitzea Azkuna Zentroaren estrategiaren parte dira, 2019-2023 Programa Proiektuaren barruan. Lankidetzako harreman horrek aukera ematen digu edukiak aberasteko, kulturako sorkuntza garaikideari ekarpena egiteko, eta komunitatea sortzeko, gizarteari esperientzia berriak eskainita.**

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao lanean ari da kultura garaikidearen nazioarteko erreferentzia diren erakundeekin, hala nola Quebeceko Maison de la littérature eta Angoulêmeko Cité internationale de la bande dessinée et de l'image zentroekin.

HEZKUNTZA PROGRAMA



# HEZKUNTZA PROGRAMA

## IKASTETXEEKIN ITUNDUA

86 Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak

88 Bilbon Eskolatik Antzerkira

94 Mediateka: konektatzeko, pentsatzeko eta sortzeko lekua

## HAURRAK ETA GAZTEAK

92 JokuPlay

93 Robotika, programazio eta bideo-jokoen diseinuko tailerrak

## HELDUAK

82 Sorkuntzako prozesuei buruzko tailerra, Lester Álvarez eta José Ramón Ais artistekin

83 Leire Urbeltz. *La probabilidad de un Entre*. Tailerra

84 Aitor Saraiba. *Autobiografías*. Tailerra

85 Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak

87 Patricia Kuypers. Steve Paxtonen inguruko tailerra

89 Elizabeth Casillas. *Zer da eleberri grafiko bat?* Ikastaroa

## PUBLIKO GUZTIAK

90 Joko Biotikoen Estazioa

# Sorkuntzako prozesuei buruzko tailerra, Lester Álvarez eta José Ramón Ais artistekin

Tailer honetan, 2018an Azkuna Zentroko artista egoiliarrak izan diren Lester Álvarezek eta José Ramón Aisek sorkuntzako prozesuen azterketa egin nahi dute, *La verdadera noche* erakusketa (Benetako gaua, BAT Espazioa. Lantegia 2) eta aurreko proiektu batzuk abiaburutzat hartuta. Elkarrizketa horretan, gehiago sakonduko da bi artisten praktika artistikoak definitzen dituzten estrategietan, hainbat diziplinaren arteko gurutzaketa baita, zinema literatura-edizioa, pintura, argazki-collagea, paisaia-diseinua eta azterketa sozialak eta politikoak barnean hartuta.

Lester Álvarezek eta José Ramón Aisek ikerketari buruz dituzten postulatuak partekatuko dituzte tailer honetan. Hori funtsezkoa da bi artistentzat, eta artelanaren sendotasun formala eta kontzeptuala bilatzeko prozesutzat har daiteke, baina helburutzat ere bai, hau da, artelana irekita dagoela, beste erabilera batzuetarako eskuragarri dagoen jakintza-iturri gisa.

*La verdadera noche* erakusketa dagoen aretoan bertan egingo da tailerra, eta, beraz, zuzenean jarri ahal izango da harremanetan lanekin.

**Urtarrilak 7 eta 8**
**Asteartea eta asteazkena**

17:30 - 20:30
Lantegia 2. BAT Espazioa

Helduentzat

20 lagun gehienez

Sarrera dohainik; aurrez, urtarrilaren 5a baino lehen, izena eman behar da azkunazentroa.eus helbidean, tailerrean parte hartzeko motibazioa aipatuta



Lester Álvarez eta José Ramón Ais

# Leire Urbeltz

## *La probabilidad de un Entre*

**Tailerra**

Leire Urbeltz ilustratzaileak *La Probabilidad de un Entre* tailerra proposatu du Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikia izeneko proiektuaren barruan.

Ez artea eta ez ilustrazioa, laborategi bat da hau, marrazkian oinarrituta sortzeko leku gisa 'Bitarteko' espazio bat jorratzeko bokazioa duen tokia. Bazterketaz bazterketa eraikia dirudien mundu batean, *La Probabilidad de un Entre* lasaitze proposamen moduko bat da, non balizko ilustrazio hedatu batekin esperimentu ahal izateko segurtasun eza eta nahasmena besarka daitekeen. Helburua, beraz, ilustrazioaren hizkuntza bera zalantzan jartzea da, bere baitan hartuko gaituen murgiltze espazio bat sortzeko gai den objektu gisa ulertuta. Hau da, haren instalazio-izaera bere aplikazioetatik harago esploratzea.

**LEIRE URBELTZ** ilustrazio hedatua deitutakoaren mugak ikertzen ditu lanean. Haren lanetan instalazioko material gisa jorratzen du ilustrazioa, eta hedatu egiten da, nola maila formalean, hala kontzeptualean; era horretan, sorkuntza garaikidearen konplexutasuna saihesten duten formula murriztaileak ezabatzen ditu. Hala, bada, Urbeltzen lana etengabe lekualdatzen koka dezakegu, hau da, ez baita bere horretan dauzkan aukeretako batean ere egonkortzen.

Urtarrilak 28 > 30
Asteartea > Osteguna

17:30 - 20:30
Mediateka. Medialab2

Helduentzat

30€ / 25€ Az Txartelarekin
Izen-ematea:
azkunazentroa.eus

Leireurbeltz1985

leireurbeltz



Leire Urbeltz

# Aitor Saraiba

## *Autobiografías*

**Tailerra**

Aitor Saraiba, Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikia izeneko proiektuaren barruan Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko eraikinaren fatxadan bere lanak ikusgai jarri zituen lehen artistak, gure zentrora itzuliko da *Autobiografías* tailerra eskaintzera. Marrazkilariak azaldu duenez, Autobiografiak gauzatzeko marrazketako eta idazketako tresnak erabiliko dituzte, «gure bizitzaren historia artikulatzeko asmoz». Tailerrak iraungo duen bi egunetan egingo dituzten ariketen bidez, parte-hartzaile bakoitza bere autobiografia antolatzen eta sortzen joango da.

Tailerrean parte hartzeko ez da beharrezkoa aldez aurretik teknika edo ezagutza jakin batzuk ikasita izatea. «Aurrez ezagututako teknikaren beharrik ez duen tailerra da, behar den bakarra zure historia kontatu nahi izatea da. Protagonista zu zeu izango zaren sorkuntzako ariketa sendatzailea».

**AITOR SARAIBA** (Talavera de la Reina, 1983) marrazkia du oinarri era askotako aplikazioak erabiliz: nola erakusketak, hala nobela grafikoak, tartean direla zeramika, hormako interbentzioak eta ekintzak, bai eta argazkia, bideoa eta nobela grafikoa ere. Hainbat liburu autobiografiko argitaratu ditu, besteak beste, hauek: *El hijo del Legionario*, *Pajarillo*, *Nada más importa*, *Por el Olvido* eta *Cómo ser valiente, justo y feliz y otras cosas en la vida*.

Martxoak 11 eta 12
Asteazkena eta osteguna

17:30 - 20:30
Mediateka. Medialab2

Helduentzat

20€ / 15€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az info eta azkunazentroa.eus

aitorsaraiba.com

@aitorsaraiba



Aitor Saraiba

# Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak

## Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa

**Soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko hiruhileko saio trinkoak**

Publiko helduari zuzendutako hiru hileko topaketa hauetan inprobisazio askea erabiltzen da medio bezala, ez helburu gisa ezinbestez, baizik eta funtsezko garrantzia emanez entzuteari eta horren bidez egindako hausnarketari. Laborategi honen bidez, kontzientzia piztu nahi dugu soinuak entzuteko, musika 'normalaren' bideetatik kanpo sormena garatzeko. Horrez gain, soinu-sorkuntzako oinarrizko alderdiez hausnarketa egin nahi dugu (isiltasuna-soinua-denbora), eta hainbat aukera eman nahi ditugu soinua lantzeko, hizkuntza estandarizatuaren aginduetatik harantz doan pertzepzio-kontzientzia lortu nahian.

Partituretan (grafikoak eta argibideetakoak) oinarritutako hainbat pieza landuko dira, bai adhoc sortutakoak eta bai konpositore klasikoek sortutakoak ere. Ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izatea, baina bai nolabaiteko moldakortasuna soinuak emateko orduan.

Miguel A. Garcíak gidatuko ditu saioak.

**MIGUEL A. GARCÍA** aka Xedh (Gasteiz) Estatuko soinu-artistarik geldiezinetako bat da, eta bere proposamenak instalazioa, konposizioa eta inprobisazio elektroakustikoa hartzen ditu barnean. Musikaria izateaz gain, Bilboko Le Larraskito klubeko sortzailea eta Zarata Fest jaialdiaren zuzendaria da. Bi plataforma horiek musika alternatiboak edo ausartak eta antzeko diziplinak zabaltzen aritzen dira.

Urtarrilak 17 > 19
Urtarrilak 17, ostirala
17:00 - 20:00
Urtarrilak 18, larunbata
11:00- 14:00 eta 16:00 - 19:00
Urtarrilak 19, igandea
Jendaurreko aurkezpena

Martxoak 6 > 8
Martxoak 6, ostirala
17:00 - 20:00
Martxoak 7, larunbata
11:00- 14:00 eta 16:00 - 19:00
Martxoak 8, igandea
Jendaurreko aurkezpena

Bastida Aretoa

Helduak

Sarrera dohainik, aurrez hemen izena emanda: azkunazentroa.eus



# Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak

## Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa

Tailer teoriko eta praktikoa, non era ludiko eta atseginean, musika esperimental eta soinu-arte garaikidea hurbilduko die gazte eta nerabeei, XX. mendeko mugimendu eta artista garrantzitsuenetik, soinu eta pertzepzioak plastikoki esperimentatzera.

Oier Iruretagoienak gidatuko ditu saioak.

**OIER IRURETAGOIENA** (Errenteria, 1988) musika esperimentalean hasi zuen bere ibilbidea, eta beste formatu batzuetara irekitzen joan da gero, hala nola eskultura, testu edo bideo-lanetara. Arte Ederretan lizentziatu zen EHUn 2011n, eta 2018an Bruselako WIELS erresidentzia programan parte hartu zuen. Bakarkako erakusketak egin ditu Bilboko Carreras Mugica galerian, Bartzelonako Halfhouse espazioan eta Gasteizko Montehermoso Kulturunean, besteak beste. Dantza, antzezlan, irrati emanaldi eta ikusentzunezkoetarako soinu bandak ere konposatu izan ditu, eta Bilboko 'Le Larraskito Klub'eko koordinatzaileetariko bat da 2010etik.

Otsailak 17 > 21
Astelehena > Ostirala

11:00 - 13:00
Lantegia 2

Hikuntza: Euskara eta gaztelania
15-30 urte
Ikastetxeekin eta Lanbide Heziketako zentroekin itundua



Tailerra Jean Luc Guionnetekin, Hotsetan artista eogilarra. Urr. 2019

STEVE PAXTON
Programa publikoa

# Patricia Kuypers

## Steve Paxtonen inguruko tailerra

Erakusketa-aretoa prestakuntza- eta esperimentazio-espazio bihurtuko da, *Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* erakusketaren esparruan Paxtonen tekniketan espezialistak diren Patricia Kuypersek, Otto Ramstadek eta Ixiar Rozasek emango dituzten tailerretan.

Patricia Kuypersek ukipeneko inprobisazioa jorratzen du, hirurogeita hamargarreneko hamarkadan Steve Paxtonek sortzen lagundu zuen teknika. Beste pertsona baten gorputza eta masarekiko harremanean ardatza jarrita, ukipeneko inprobisazioak bi pertsonaren artean ukipen fisikoko puntuak jartzen ditu jokoan, ukimena eta pisua esploratuz.

**PATRICIA KUYPERS:** dantzaria, koreografoa, editorea eta dantza-ikertzailea, laurogeigarren hamarkadaz geroztik, esperimentatu, hauteman eta komunikatu egiten duen gizakia kokatu izan du bere prozesu artistikoaren erdian. Inprobisazioko irakaslea da, eta Europa osoan zehar biko, hiruko eta forma kolektibo zabalagoen performance ugari egin izan ditu. Teknologia berriek dantzari egin dioten ekarpena ere esploratu du. Contredanse argitaletxearen eta *Nouvelle de danse* aldizkariaren sortzailea da.

**Patricia Kuypers**
Martxoak 11 > 14
Osteguna > Astelehena
16:00 - 20:00
Erakusketa Aretoa
45 € / 35 € Az Txartelarekin

**Otto Ramstad**
Apirilak 20 > 23

**Ixiar Rozas**
Apirilak 24 eta 25

Apirileko tailerrei buruzko informazioa kontsulta ezazu hemen: azkunazentroa.eus



Patricia Kuypers. Arg.: Ahmed Waddah

# Bilbon Eskolatik Antzerkira

## Mitusu elkartea

Bilboko Udalak, Mitusu Elkartearekin lankidetzan, arte eszenikoak hezkuntzarako tresna gisa erabiltzearen aldeko apustua egiten du, eta ikastaro honetan jarraipena emango dio bide horri, Bilbon Eskolatik Antzerkira programaren bidez.

### Teatro Paraiso

*Único. Tronutik kendutako printzea*

Paul haur paregabea da. Arreta handia jasotzen du bere gurasoengandik. Haur gehiegi babestuta, apetatsua eta eguzki epeletakoa da. Egunen batean, zerbait berezi eskatu zuen: arrebatxo bat. Eta, dagozkion bederatzi hilabete igaro ondoren, Paulek kapritxo berria lortu zuen: Elisa.

Bere arrebaren jaiotzak astindu handia eragin zuen, bai familian baita, batez ere, Paulen. Erreinaldia partekatu beharko du “irrikatutako” arrebatxorekin. Gaitasun berriak ikasi eta denbora eta maitasuna beharko ditu bere emozioak kudeatzen lortzeko eta hazteko.

### Factory Compagnia Transadriatica

*Ahatetxo itsusi baten egunerokoa*

*Ahatetxo itsusi baten egunerokoa* ikuskizunak antzerkia eta dantza bateratzen ditu, Andersenen haurrentzako klasiko batetik abiatuta; ipuinak dibertsitatearen, nortasunaren eta gizarteratzearen gaiari heltzen dio, hizkuntza erraz eta oroitarazle baten bidez.

Jaiotza eta familiaren arbuioa, eskola eta eskolako jazarpena, lan-mundua, ustekabean heltzen den maitasuna, ehiza eta, gero, gerra, edonoren begietan esplikaezina den izugarrikeria gisa; aurkako mundu bateko etapak, agian, baina bakarrik gure ‘ahatetxoa’ bere burua bere begiekin begiratzeko eta den moduan onartzeko gai den arte, hain zuen ere Andersenen ipuineko ahatetxoari gertatzen zaion bezala, lakuan islatuta bere benetako nortasuna aurkitzen duenean.

**Teatro Paraiso**
***Único. Tronutik kendutako printzea***

Martxoak 10 eta 11
Asteartea eta asteazkena

9:30 - 11:30 / 55’
Auditorioa

FITXA ARTISTIKOA

**Egilea etazuzendaria:**
Iñaki Rikarte

**Antzezleak:**
Aitor De Kintana o Tomás Fernández Alonso, Ainara Unanue, Maitane Goñi

**Factory Compagnia Transadriatica**
***Ahatetxo itsusi baten egunerokoa***

Martxoak 16 eta 17
Astelehena eta asteartea

9:45 - 11:30 / 45’
Auditorioa

FITXA ARTISTIKOA

**Egilea etazuzendaria:**
Tonio de Nitto

**Antzezleak:**
Ilaria Carlucci, Fabi Tinella, Luca Pastore, Francesca de Paquale

Ikastetxeekin itundua.
Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako ikuskizuna
Informazioa eta erreserbak:
944 014 014
azkunazentroa@azkunazentroa.eus

Bilbao

MITUSU
HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA
PROGRAMACIÓN ESCENICA PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES

# Elizabeth Casillas

## *Zer da eleberri grafiko bat?*

**Ikastaroa**

Ikastaro honetan, eleberri grafikoaren sorkuntzara hurbilduko gara, hala haren hizkuntzara eta kodeetara, nola haren historiara. Gainera, irakurketa-klubaren antzeko formatua du, eta hori lagungarria da iritziak ahoz hobeto azaltzeko, eta, orobat, kultura-lanen ikuspegi kritikoa sortzeko. Lehen saioan, komikia zer den, eta haren hiztegia, denborak eta sorkuntza-prozesuak zein diren adieraziko da; horren ondoren, autore batzuen lana eta komikiaren historiaren barruan duten testuingurua aztertuko da, eta, gero, parte-hartzaileen iritzi orokorra azalduko da.

Kasu bakoitzean, landutako gai sozialak, haien ikuspegiak eta obrako pertsonaiak ere aztertuko dira. Saio bakoitza amaitzeko, lanaren zati bat hartuko da adibidetzat, komikiaren hizkuntzaren berezko elementuak azaltzeko, hala nola elipsia, bineta-motak, bunbuiloak,... eta hurrengo saioko lana aurkeztuko da.

Urtarrilak 22
Otsailak 5 eta 19
Martxoak 4
Asteazkena

18:30 - 20:00
Medialab 2. Mediateka BBK

30€ / 25€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta
azkunazentroa.eus

**ELIZABETH CASILLAS** (Bilbo, 1986) Kazetaria, *Cactus* aldizkariaren sortzaile eta editorea eta argitalpen-kudeatzailea. ‘Jóvenes y blasfemas’ (2016) jaialdiko zuzendaria; emakumeak komikiaren eta bideo-jokoaren industrietan duen presentzia lantzen du. Joker liburu-dendako Nobela Grafikoaren Kluba koordinatzen du, eta kulturaren inguruko ekitaldiak dinamizatzen ditu. Komikiak, literatura eta feminismoak dira bere jardueraren ardatza.



Elizabeth Casillas

# Joko Biotikoen Estazioa

## Biook irabazi asmorik gabeko elkartea

Bideo-jokoak dibertigarriak eta bereziki eraginkorrak dira haurren eta gazteen interesa pizteko, bai eta helduena ere.

Bideo-jokoak biologiarekin, teknologiarekin, elektronikarekin eta diseinuarekin topo egiten dutenean, dibertsio hutsa baino askoz gehiago dira.

Joko Biotikoak, organismo biziak erabiltzen dituzten bideo-jokoak, etorkizun handia duen aukera berritzailea dira. Open Space-n den Joko Biotikoen Estazioak zer diren, nola egiten diren, nola diseinatzen diren eta Joko Biotikoetan nola jokatzen den aurkezten du, parte hartzeko jardueren eta adin guztietarako tailerren bidez.

Urtarrilak 17 > 19
Ostirala > Igandea

Open Space. Erakusketa Aretoa

Publiko guztiak

Sarrera dohainik gonbidapenarekin, hemen: eventbrite.es

Ikusi programa osoa hemen: bbkopenscience.com

Biology by & for the people





*You:R:Code* pieza. *Open Codes. We are data* erakusketa. Arg.: Vicente Paredes

# JokuPlay

## Mediatekako jolasgunea

Hiruhileko honetako bideo-jokoen proposamenaren ardatza mugimendua da, dantza, triska… Hori guztia otsailaren 20tik erakusketa aretoan ikusgai dagoen *Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* erakusketarekin lotuta.

### A dance of fire and ice (PC)

Musikaren erritmo nagusiaren gainean kolpeak jotzeari buruzko erritmo zorrotzeko jolasa da.

### Bound (PS4)

Bideo-joko honetan emakume dantzari eder baten rola jokatuko dugu; haren mugimendu dotoreek balleta, dantza garaikidea, gimnasia eta aireko dantza konbinatzen dituzte.

### Everything (PC)

Hiru dimentsioko esplorazio-jokoa da, argi eta garbi filosofikoa den oinarria duena. Goragoko entitate moduko bat kontrolatuko dugu, pertsonaia batetik bestera igaro daitekeena eta horien guztien kontrolaz jabetu daitekeena.

### Flower (PC)

Bideo-joko honetan, dantza liluragarri bat sortzen da: jokalariak haizea kontrolatu behar du, lore-hostoak airean bulkatuz.

### Journey (PS3) / Txikiland

Joko honek desertu zabalak eta hondar zaharrak esploratzen ditu, bidaia hunkigarri batean, ahaztutako zibilizazio baten sekretuak argitzeko.

**Ordutegia:**

Astelehenetik ostiralera:
9:00 - 21:00

Larunbatak, igandeak eta jai-egunak:
11:00 - 21:00

14 urte gorakoentzat
Mediateka. 2. solairua
Sarrera dohainik

bbk

Laguntzailea:

IKEA



# Robotika, programazio eta bideo-jokoen diseinuko tailerrak

Camp Tecnológicok teknologiari lotutako hainbat jarduera antolatzen ditu, 14 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta. Kanpamendu, asteburuko klub edo ikastaroaren formatua hartuta, hezkuntzako proposamen hauek zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikarekiko interesa pizten dute neska-mutilengan.

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko hainbat espaziotan egiten diren tailer hauetan, hastapenak ikasten dira hainbat teknologiatan, esaterako, robotikan, programazioan eta bideo-jokoen garapenean, edota 3Dko diseinuan eta inprimatzean, gazteek, programazioaren logika erabiliz, beren gailuak eta aplikazioak irudikatu eta eraiki ahal izan ditzaten.



Camp Tecnológico
Kulturen Ataria

**Eskolaz kanpoko jarduerak**

Irailaren 23tik aurrera
Astelehena > Osteguna

17:30 > 18:30
18:30 > 19:30

**Asteburuko kluba**

Urriaren 4tik aurrera
Astero edo txandakako astetan
Ostirala: 18:00 - 20:00
Larunbata: 10:00 - 12:00 / 12:00 - 14:00

**Larunbatak**

Irailaren 28tik aurrera
Txandaka, goizez edo arratsaldez
10:00-13:30 eta 16:30-20:00

**Aste-santuko kanpamendua**

Robotikako tailerrak. Bideo-jokoak sortzea: Minecraft, Unity, Roblox eta Unreal. Robotak muntatzea eta programatzea: Maker Experience/ 3D inprimatzea / Dronak eta askoz ere kontu gehiago.

Informazioa jasotzeko eta izena emateko:
camptecnologico.com

Az Txartelarekin %5eko deskontua

CAMP TECNOLÓGICO

# Mediateka: konektatzeko, pentsatzeko eta sortzeko lekua

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko partea den aldetik, Mediateka konektatzeko, pentsatzeko eta sortzeko leku bat da, gizartea eta kultura garaikidea ardatz gisa hartuta.

Liburutegien ikuskera garaikide baten isla da. Kontsulta bibliografikorako gune honek bilduma garrantzitsua du, euskarri desberdinetan, Zentroaren programazioko sei ildoei lotuta: Arte garaikidea, Zuzeneko arteak, Zinema eta ikus-entzunezkoak, Literatura, Gizartea eta Kultura digitala.

Proiektu honen testuingurua ezagutzeko eta Mediatekara datozen pertsonen esperientzia hobetzeko, bisiten programa bat egiten dugu, era askotako jende multzoetara egokitua.

2019ko Urriak 1 > 2020ko maiatzak 30
Asteazkena eta osteguna

Haur Hezkuntza / Lehen eta Bigarren Hezkuntza / Erdi Mailako Lanbide Heziketa

Haur Hezkuntza:
9:30 - 10:15

Lehen eta Bigarren Hezkuntza:
9:30 - 11:00

Erdi Mailako Lanbide Heziketa:

9:30 - 11:00

25 lagun gehienez
Hezkuntza: Euskara (Gaztelaniaz, ikastetxeak eskatuz gero)

Ikastetxeekin itundua
Informazioa eta erreserbak:
944 014 014
azkunazentroa@azkunazentroa.eus




dendAZ
THIS IS
BASQUE DESIGN
Diseinua
Ilustrazioa
Argitalpenak
Moda eta osagarriak
Dekorazioa
Bodega
Bertako 30 artista baino gehiago
2020ko urtarrilaren 31 arte
-10%
20€ baino gehiagoko erosketetan,
argitalpenak izan ezik

AGENDA

## AGENDA
# / URTARRILA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| 2019ko UZTAILETIK | | **Nestor Lizalde**<br>*Akelarre elektrikoa* | 28. or. |
| URR. **23** 2019 > URT. **26** 2020 | | Erakusketa<br>*Open Codes. We are data* | 20 or. |
| AZA. **15** 2019 > URT. **15** 2020 | | Fatxada<br>**Ane Pikaza**<br>*Atentamente mía* | 26. or. |
| ABE. **4** 2019 > ENE. **26** 2020 | | Erakusketa<br>**Lester Álvarez y José Ramón Ais**<br>*La verdadera noche* | 28. or. |
| URT. **7** Asteartea | 17:30 | **Lester Álvarez eta José Ramón Ais**<br>Sorkuntzako prozesuei buruzko tailerra | 82. or. |
| URT. **8** Asteazkena | 17:30 | **Lester Álvarez eta José Ramón Ais**<br>Sorkuntzako prozesuei buruzko tailerra | 82. or. |
| | 17:00 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*2001: A space odyssey* (1968) *2001: Espazioko odisea* | 40. or. |
| | 20:00 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*De Natura* (1983) + *Evolution* (2015) | 44. or. |
| URT. **9** Osteguna | 17:00 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*De Natura* (1983) + *Evolution* (2015) | 44. or. |
| | 19:00 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*2001: A space odyssey* (1968) *2001: Espazioko odisea* | 40. or. |
| URT. **11** Larunbata | 19:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Estado de malestar* (2018). Soinu banda zuzenean Edredón taldearen eskutik | 45. or. |
| URT. **15** Asteazkena | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Gentlemen prefer blondes* (1953) *Jaunek ilehoriak nahiago dituzte* | 40. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Anthropocene: the human epoch* (2018) | 45. or. |

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| URT. **16** Osteguna | 1730 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Anthropocene: the human epoch* (2018) | 45. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Gentlemen prefer blondes* (1953) *Jaunek ilehoriak nahiago dituzte* | 40. or |
| URT. **17** Ostirala | | Joko Biotikoen Estazioa<br>Biook | 90. or |
| | 17:00 | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak** | 85. or |
| | 21:00 | Kontzertua<br>**Lekuona**<br>*Break Fast Live* | 56. or |
| URT. **18** Larunbata | | Joko Biotikoen Estazioa<br>Biook | 90. or |
| | 11:00<br>16:00 | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak** | 85. or |
| URT. **19** Igandea | | Joko Biotikoen Estazioa<br>Biook | 90. or |
| | | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak**<br>Jendaurreko aurkezpena | 85. or |
| URT. **21** > MAR. **27** Asteartea | | Zinema<br>**Golem Arte 2020ko Negua** | 46. or. |
| URT. **22** Asteazkena | | Ikastaroa<br>**Elizabeth Casillas**<br>*Zer da eleberri grafiko bat?* | 89. or |
| | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*E.T.: The extra-terrestrial* (1982) *E.T. estralurtarra* | 40. or |
| | 19:00 | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Lluïsa Espigolé eta Erica Wise**<br>Portrait Concert Morton Feldman. *Patterns in a Chromatic Field* (1981)<br>biolontxelo eta pianorako | 62. or |
| | 20:00 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Estado de malestar* (2018) | 45. or |

# AGENDA
# / URTARRILA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| URT. **23** Osteguna | 20:00 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi** *E.T.: The extra-terrestrial* (1982) *E.T. estralurtarra* | 40. or |
| URT. **24** Ostirala | 19:00 | **consonni radio Az-rekin FEST** | 30. or |
| URT. **25** Larunbata | 19:00 | Soinu-esperientzia **Laboratorio Klem** *Pulse* | 72. or. |
| URT. **28 > 30** Astr. > Ostg. | 17:30 | Tailerra **Leire Urbeltz** *La probabilidad de un Entre* | 83. or. |
| URT. **30** Osteguna | 17:30 | Zinema eta ikus-entzunezkoak *Momentum Generation* Bilbao Surf Festival | 46. or. |
| | 19:30 | Solasaldia La Nuit des Idées (Ideien Gaua) | 68. or. |

# AGENDA
# / OTSAILA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| 2019ko UZTAILETIK | | **Nestor Lizalde** *Akelarre elektrikoa* | 28. or. |
| OTS. **4 >** MAR. **31** | | Zinema eta ikus-entzunezkoak **BIdeOtik** Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira | 36. or. |
| OTS. **5** Asteazkena | 18:30 | Ikastaroa **Elizabeth Casillas** *Zer da eleberri grafiko bat?* | 89. or. |
| | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi** *El padrino* (1972) *Aitajauna* | 40. or. |
| | 19:30 | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa **Natasha Barrett eta Mikel Iturregi** | 66. or. |

# AGENDA
# / OTSAILA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| OTS. **6** Osteguna | 18:30 | Topaketa<br>**Mikel Santiago**<br>*Nola idatzi eleberri bat astirik ez baduzu?* | 70. or. |
| | 18:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*El padrino* (1972) *Aitajauna* | 40. or. |
| OTS. **12** Asteazkena | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Hotaru no haka* (1988) *Ipurtargien hilobia* | 41. or. |
| OTS. **13** Osteguna | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Hotaru no haka* (1988) *Ipurtargien hilobia* | 41. or |
| OTS. **14** Ostirala | 21:00 | Kontzertua<br>**Lois** | 58. or |
| OTS. **17 > 21** Astl. > Ostr. | 11:00 | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak** | 86. or |
| OTS. **17 >** API. **26** | | Erakusketa<br>**Alina Aguila eta Tana Garrido** | 24. or |
| OTS. **19** Asteazkena | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Jeux interdits* (1952) *Joko debekatuak* | 41. or |
| | 18:30 | Ikastaroa<br>**Elizabeth Casillas**<br>*Zer da eleberri grafiko bat?* | 89. or |
| OTS. **20** Osteguna | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Jeux interdits* (1952) *Joko debekatuak* | 41. or |
| OTS. **20 > 10** MAI. | | Erakusketa<br>*Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* | 18. or |
| OTS. **21** Ostirala | 19:00 | Dantza<br>**50 Jurij Konjar**<br>*Flat + Satisfyin Lover* (Steve Paxton) *& Variaciones Goldberg* (Jurij Konjar) | 48. or |

# / MARTXOA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| 2019ko UZTAILETIK | | **Nestor Lizalde**<br>*Akelarre elektrikoa* | 28. or. |
| OTS. **4**<br>> MAR. **31** | | Zinema eta ikus-entzunezkoak<br>**BIdeOtik**<br>Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira | 36. or. |
| OTS. **17**<br>> API. **26** | | Egonaldi Artistikoak<br>**Alina Aguila eta Tana Garrido** | 24. or. |
| OTS. **20**<br>> MAI. **10** | | Erakusketa<br>*Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* | 18. or. |
| MAR. **2 > 15** | | Instalazioa<br>**Álex Rigola**<br>*Macho Man* | 54. or. |
| MAR. **2 > 22** | | Soinu-interbentzioa. Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Sandra Cuesta**<br>*Lo adherente y el fuego* | 66. or. |
| MAR. **4**<br>Asteazkena | 18:30 | Ikastaroa<br>**Elizabeth Casillas**<br>*Zer da eleberri grafiko bat?* | 89. or. |
| | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Sanma no aji* (1962) *Sakearen zaporea* | 41. or. |
| MAR. **5**<br>Osteguna | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Sanma no aji* (1962) *Sakearen zaporea* | 41. or. |
| MAR. **6**<br>Ostirala | 11:00<br>16:00 | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak** | 85. or. |
| MAR. **7**<br>Larubata | | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak** | 85. or. |
| MAR. **8**<br>Igandea | 17:00 | Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak**<br>Jendaurreko aurkezpena | 85. or. |
| MAR. **10**<br>Asteartea | 9:30 | Bilbon Eskolatik Antzerkira<br>**Teatro Paraiso**<br>*Único. Tronutik kendutako printzea* | 88. or. |

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| MAR **11**.<br>Asteazkena | 9:30 | Bilbon Eskolatik Antzerkira<br>**Teatro Paraiso**<br>*Único. Tronutik kendutako printzea* | 88. or. |
| | 17:30 | Tailerra<br>**Aitor Saraiba**<br>*Autobiografías* | 84. or. |
| | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*La dolce vita* (1960) | 41. or. |
| MAR **11 > 14**.<br>Astz. > Lar. | | **Patricia Kuypers**<br>Steve Paxtonen inguruko tailerra | 87. or. |
| MAR **12**.<br>Osteguna | 17:30 | Tailerra<br>**Aitor Saraiba**<br>*Autobiografías* | 84. or. |
| | 18:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*La dolce vita* (1960) | 41. or. |
| | 20:00 | Dantza<br>**Ion Munduate**<br>*Goldberg Versions* | 50. or. |
| MAR. **13**<br>Ostirala | 21:00 | Kontzertua<br>**Lasole**<br>*Números primos* | 60. or. |
| MAR. **16**<br>Astelehena | 19:00 | Topaketa<br>**Posy Simmonds** | 71. or. |
| | 9:45 | Bilbon Eskolatik Antzerkira<br>**Teatro Paraiso**<br>*Único. Tronutik kendutako printzea* | 88. or. |
| **17** MAR.<br>Martes | 9:45 | Bilbon Eskolatik Antzerkira<br>**Teatro Paraiso**<br>*Único. Tronutik kendutako printzea* | 88. or. |
| MAR. **19 > 28**<br>Ostg. > Lar. | | **Loraldia**<br>Loraldia jaialdia 2020 | 69. or. |
| MAR. **24**<br>Asteartea | 20:30 | **Euskal Aktoreen Gala**<br>Auditorioa | |
| MAR. **26**<br>Osteguna | 19:30 | Dantza<br>**Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter Mathiassen** | 52. or. |

## BISITA GIDATUAK

### Banakako bisitak:

Astelehena eta asteartea (gaztelaniaz), 19:00
Osteguna (euskaraz), 19:00
Bisita dohainik da, 45 minutuko iraupena du, eta gutxienez bost lagun behar dira egin ahal izateko.

### Taldekako bisitak:

Bisita taldeka egin nahi baduzu (gehienez 25 lagun), asteko edozein egunetan egin dezakezu erreserba, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara. Prezioa 50 eurokoa da (25€ behar bezala eratuta dauden eta bisita hau beren jarduera-egutegian sartzen duten elkarteak).

Informazioa eta erreserbak: Az Info eta 944 014 014 telefonoan.

## Az TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu.

Galtzeagatik eta/edo datuak aldatzeagatik txartela berritu behar bada, horrek 3 euroko kostua du.

## IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroak espazio errespetuzko, ireki eta irisgarria izan nahi du orotariko pertsona eta komunitateentzat. Gure jardueretan errazago parte hartzeko laguntza teknikorik behar baduzu, eska iezaguzu.

## ORDUTEGIA

### Kulturen Ataria

| | | | |
|---|---|---|---|
| ASTELEHENA - OSTEGUNA | 7:00 - 23:00 | LARUNBATA | 8:30 - 24:00 |
| OSTIRALA | 7:00 - 24:00 | IGANDEA | 8:30 - 23:00 |

### Mediateka BBK

| | |
|---|---|
| ASTELEHENA - OSTIRALA | 9:00 - 21:00 |
| LARUNBATAK | 11:00- 21:00 |
| IGANDEAK ETA JAIEGUNAK | 10:00 - 14:00 |

## ORDUTEGIA

### Ikasketa Aretoa

| | | | |
|---|---|---|---|
| ASTELEHENA - OSTEGUNA | 7:00 - 23:00 | LARUNBATA | 8:30 - 24:00 |
| OSTIRALA | 7:00 - 24:00 | IGANDEA | 8:30 - 23:00 |

### Jarduera Fisikoko Zentroa

| | |
|---|---|
| ASTELEHENA - OSTIRALA | 7:00 - 23:00 |
| LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK | 8:30 - 23:00 |

### Erakusketa Aretoa (-1 solairua)

| | |
|---|---|
| ASTELEHENA ITXITA | |
| ASTEARTETIK OSTEGUNERA ETA IGANDEAK | 11:00 - 20:00 |
| OSTIRALAK, LARUNBATAK, IGANDEAK, JAIEGUNAK ETA JAIEGUN BEZPERAK | 11:00 - 21:00 |

### BAT Espazioa (Lantegia 2)

| | |
|---|---|
| IGANDEA ETA ASTELEHENA ITXITA | |
| ASTEARTETIK LARUNBATERA | 16:30 - 20:30 |

### Jendearentzako arreta (Az Info eta telefonoan)

| | |
|---|---|
| ASTELEHENA - OSTIRALA | 8:00 - 22:00 |
| LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK | 9:00 - 22:00 |

### Az Info

| | |
|---|---|
| ASTELEHENA - OSTIRALA | 8:00 - 22:00 |
| LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK | 9:00 - 22:00 |

### dendAZ

ASTELEHENA - IGANDEA 10:00 - 21:00

## GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

**Astelehena, ikuslearen eguna:** 5,20€ lehiatilan / 5,10€ golem.es

**Asteazkenetan zinemara:** 4,90€ lehiatilan / 4,80€ golem.es

**Igande gauak, 22:00etatik aurrera:** 5€ lehiatilan / 4,90 golem.es
Jaiegunetan ez da baliozkoa

**Martes:** 5,20€ con Tarjeta Az
Jaiegunetan, jai bezperetan eta kanpokoko zikloetan ez da baliozkoa

# OHARRAK

## OHARRAK


Azkuna Zentr

## Jar zaitez harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus
info@azkunazentroa.eus
944 014 014

PLAZA ARRIQUIBAR, 4
48010 BILBAO

Lege gordailua BI-1482-2018

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporáea S.A.

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO